

# HIZKUNTZA PROIEKTUA

## Hizkuntza Normalkuntza



- 1- HIZKUNTZA NORMALKUNTZATIK HIZKUNTZA PROIEKTUARI EKARPENAK
- 2- HIZKUNTZA PROIEKTUA: adibideak

2015-04-10

ESKU ARTEAN DUZUEN DOKUMENTO HAU  
2016KO URTARRILEAN EUSKO JAURLARITZAK  
ARGITARATU DUEN “*IKASTETXEAREN HIZKUNTZA  
PROIEKTUA EGITEKO GIDA*” ARGITALPENEAN ETA  
EUSKO JAURLARITZAKO “*IKASTETXEEN  
HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PROIEKTUA/  
BRANKA*”N (DIAGNOSI TRESNA) OINARRITU DA.

## BERRITZEGUNEAK

Dokumentoaren egileak:

*· A01 Maria Tato Imaz · A01 Ihanire Urteaga Cid · B03 Jabi  
Bilbao Astigarraga · B06 Joseba Ibarretxe Fernandez De Larrinoa  
B07 Pili Ikazuriaga Muniategi · B10 Nerea Jaio Insunza · B10  
Eider Santiesteban Mendizabal · BN Markos Bilbao Labado ·*

# HIZKUNTZA PROIEKTUA

**IKASTETXEA:**

Data:

**HIZKUNTZA  
NORMALKUNTZATIK  
HIZKUNTZA PROIEKTUARI  
EKARPENAK**

# HIZKUNTZA PROIEKTUA

---

## *Aurkibidea*

1. Sarrera. Zertarako Hizkuntza Proiektua?
2. Egoeraren analisia. Nortzuk gara eta non gaude?
  - 2.1. Ikastetxearen eta inguruaren ezaugarriak
  - 2.2. Ikastetxearen ibilbidea hizkuntzei dagokienez
3. Ikastetxearen hizkuntza helburuak. Zer nahi dugu?
  - 3.1. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren printzipioen zehaztapena hizkuntzei dagokienez
  - 3.2. Planteamendu eleanitza
  - 3.3. Helburuak
4. Ikastetxearen Hizkuntza Planteamendua
  - 4.1. Harremanen, kudeaketaren eta antolaketaren eremua. Norekin eta zein hizkuntzatan?
  - 4.2. Eremu didaktiko-metodologikoa. Nola irakasten ditugu hizkuntzak?
5. Plan Estrategikoa. Zer egingo dugu?
  - 5.1. Harremanen, kudeaketaren eta antolaketaren eremua
  - 5.2. Eremu didaktiko-metodologikoa
6. Hizkuntza Proiektuaren ebaluazioa

## 1. *Sarrera. Zertarako Hizkuntza Proiektua?*

(Hizkuntza proiektua egiteko edo berritzeko arrazoiak.

Arrazoiak askotarikoak izan daitezke. Sentsibilizazio fasean sortutako zalantzetatik abiarazi daiteke atal hau.)

## 2. *Egoeraren analisia. Nortzuk gara eta non gaude?*

- HNP lau ikasturtetarako sarrera
- Herria eta ikastetxearen kokapena (Beste proiektu batzuetatik ere jaso daiteke)
- Gogoratu BRANKAN oinarriko Eustateko datuak sartu zenituztela. Gehiago nahi izan ezkeror: Herriko egoera sozio-linguistikoa...:

[http://eu.eustat.eus/estadisticas/opt\\_0/id\\_5/subarbol.html#axzz3px0zlg2O](http://eu.eustat.eus/estadisticas/opt_0/id_5/subarbol.html#axzz3px0zlg2O)

### 2.1. *Ikastetxearen eta inguruaren ezaugarriak*

#### 2.1.1. *Ikasleen inguru linguistikoa*

- [www.ulibarri.info](http://www.ulibarri.info): BRANKA 13-14: 3.1. eta 3.3: ikasleen ezagutza eta erabileraren datuak.
  - Ikasleen jatorrizko hizkuntza eta
  - Ikasleen ezagutza eta ikasgelako erabileraren datuak (mintzagrama).
- [www.ulibarri.info](http://www.ulibarri.info): gelargazkia erabil daiteke hurrengo 2 ataletarako.

##### 2.1.1.1. *Familian erabiltzen diren hizkuntzak*

Gelargazkian: Nola hitz egiten duzun etxekoekin/nola hitz egiten dizute. Gurasoek etxean haien artean hitz egiten duten hizkuntza/k.

##### 2.1.1.2. *Auzo edota herriko hizkuntzen erabilera*

Gela-argazkian: kalean edo auzoan nola hitz egiten duzun/nola hitz egiten dizuten. Udalarekin duten harremana ere jasota dago Brankan.4.2.Elkarteak/ erakundeak eragile

### 2.2. *Ikastetxearen ibilbidea hizkuntzei dagokienez*

- [www.ulibarri.info](http://www.ulibarri.info): BRANKA13-14: Euskararen ezagutza eta erabilera: EMAITZAK.
- HNP 14-18an, ikastetxe askotan agertzen da ibilbide hori.
- 2. Eremu instituzionalean egiten den hizkuntz erabilera: dokumentuen idatzizko hizkuntza erabilera, errotulazioa, zuzendaritzaren eta Eskola Kontseiluaren ezagutza eta ahozko erabilera eta kanpo harremanak.
- 3. Eskolako kideak:
  - Ikasleak: jatorrizko hizkuntza (3.1), ezagutza (3.2), ikasgelako hizkuntz erabilera (3.3) (mintzagramak)

- Irakasleak: euskara ezagutza (ahoz zein idatziz) eta hizkuntz prestakuntza (3.4), ahozko hizkuntz erabilera (mintzagramak) (3.5)
- Ez-irakasleak: euskara ezagutza (ahoz zein idatziz), hizkuntz prestakuntza (3.6).
- Gurasoak: gurasoen ezagutza eta ikastetxearekin ohiko komunikazio hizkuntza (3.7).
- Irakasleen ingelesa, frantsesa... ezagutza Beste hizkuntzetako datuak jasotzeko brankako txantiloia erabil daiteke

### **2.2.1. Hizkuntzen irakaskuntza: antolamendua, hizkuntzak eta hizkuntzak ez diren arloetan.**

- Hizkuntzak: Barne eta kanpo ebaluazioen emaitzak: Emaitza akademikoak, Ebaluazio-diagnostikoen emaitzak, Arrue, PISA,
- Antolamendua: Ikasleen taldekatzean irizpide linguistikorik ba al dugu? Ikasle etorkinak, hizkuntzen errefortzuak antolatzeko irizpiderik ba al dugu?...

## **3. Ikastetxearen hizkuntza helburuak. Zer nahi dugu?**

### **3.1. Hezkuntza Proiektuaren printzipioen zehaztapena hizkuntzei dagokienez**

### **3.2. Planteamendu eleanitza**

### **3.3. Helburuak**

**HNP 14-18 proiektuan agertzen diren helburuak sartu daitezke.**

## **4. Ikastetxeko hizkuntza planteamendua**

### **4.1. Harremanen, kudeaketaren eta antolaketaren eremua. Norekin eta zein hizkuntzatan?**

- Hizkuntzen erabilerarako irizpideak:
  - Euskeraren erabilera lehenetsiko da eremu instituzionalean zein estamenduen artean. (Hizkuntza Normalkuntza Proiektua 14-18)
- Elkarlana: HNP 14-18an agertzen dena: Udala, Euskara Elkarteak, Erakundeak... (“kanpo harremanak”)

### **4.2. Eremu didaktiko-metodologikoa. Nola irakasten ditugu hizkuntzak?**

#### **Erabaki adostuak:**

- Metodologia eta material egokiak
- Ebaluazio-irizpideak
- Euskararen erregistroak: formala eta informalararen lanketa, Noiz, Zelan...
- Ahozkoaren lanketa, hizkuntza arloetan eta hizkuntzak ez diren arloetan, noiz, zelan...

- Hizkuntzak ez diren arloetan: arloari dagokion ahozko eta idatzizko ulermena eta adierazpenaren lanketa, ebaluazioa...
- Eleaniztasuna: atzerriko hizkuntzaren irakaspena (arloa), metodologia, ebaluazioa, sarrera goiztiarra...
- Hizkuntzaren gizarte dimentsioa lantzeko estrategiak (hizkuntza jarrerak)

## ERANSKINAK: IKASTETXEAREN HIZKUNTZA PROIEKTUA EGITEKO GIDA

### Garapena

#### GARAPEN FASEAREN JARDUERAK:

#### 3. Ikastetxearen hizkuntza helburuak:

##### 9 Datuak interpretatzea

- 9.1. Diagnostiko faseko Datuak jaso eta sailkatzeko taulan jasotako datuak interpretatzea
- 9.2. Hizkuntza Proiektuaren lehentasunezko jarduerak zehaztea.

##### 10 Helburuak zehaztea

- 10.1. Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren helburuak zehaztea.

#### 4. Ikastetxearen hizkuntza planteamendua:

##### 11 Ikastetxearen Hizkuntza Planteamendua

- 11.1. Ikastetxearen Hizkuntza Planteamendua adostea eta zehaztea.

### 9 Datuak interpretatzea

Hemen txertatu behar dira BRANKAko datuetatik abiatuta HNProiektuan egin den interpretazioa (EREMUEN GAINEN HAUSNARKETA). Era berean, HNP 14-18ko helburuak (4 URTEKO PROIEKTUA).

1. DIAGNOSI TRESNAK:
  - a. Branka
  - b. Mintzagrama
  - c. Gela-argazkia
  - d. Erabilera eremu informaletan

### 10 Helburuak zehaztea

Hemen HNP 14-18ko helburuak jaso behar ditu, beste helburu batzuen artean (Ikasturteko Plana).

### 11 Ikastetxearen Hizkuntza Planteamendua

- Antolamendua, kudeaketa eta harremanetarako esparruan, HNPko eremu instituzionalekoa jaso. Era berean Eskolaz kanpoko eremua. Eta, askotan, AZL eta Gurasoen esparrua
- Esparru didaktiko-metodologikoan, Euskarari dagokionez, HNPko Irakasleen prestakuntza, metodologia / Ikasleen gaitasuna, interakzio didaktikoa, ...
  - Hizkuntza jarrerak
  - Hizkuntzak ez diren arloetan (D eredia izanik): ahozko jardueren ebaluazio-irizpide bateratuak



# HIZKUNTZA PROIEKTUA

adibideak

## HIZKUNTZA PROIEKTUAREN EDUKIAK

Sentsibilizazio fasea

### 1. Sarrera. Zertarako Hizkuntza Proiektua?

- Hizkuntza Proiektua egiteko edo berrikusteko arrazoiak

### 2. Egoeraren analisisa. Nortzuk gara eta non gaude?

- Ikastetxearen eta inguruaren ezaugarriak
- Ikastetxearen ibilbidea hizkuntzen inguruan

Diagnostiko fasea

### 3. Ikastetxearen hizkuntza-helburuak. Zer nahi dugu?

- Hezkuntza proiektuaren printzipioak hizkuntzei dagokienez
- Planteamendu eleanitza
- Helburuak

Garapen fasea

### 4. Ikastetxearen Hizkuntza Planteamendua

#### 4.1. Harremanen, kudeaketaren eta antolaketaren eremua. Zer hizkuntza erabiliko dugu?

- Hizkuntzen erabilera ikastetxeko barneko eta kanpoko komunikazioetan
- Hizkuntza-paisaia
- Baliabideak
- Lan-harremanak

#### 4.2. Eremu didaktiko-metodologikoa. Nola irakasten ditugu hizkuntzak?

- Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia garatzeko printzipio didaktiko-metodologikoak
- Hizkuntzak arlo ez linguistikoetan
- Hizkuntzak arlo linguistikoetan
- Ikasleen hizkuntza-aniztasunari erantzuna
- Irakasleen prestakuntza

### 5. Plan Estrategikoa. Zer egingo dugu?

#### 5.1. Harremanen, kudeaketaren eta antolaketaren eremua

#### 5.2. Eremu didaktiko-metodologikoa

### 6. Hizkuntza Proiektuaren ebaluazioa. Zer lortu dugu?

# HIZKUNTZA PROIEKTUA

## *Aurkibidea*

1. Sarrera. Zertarako Hizkuntza Proiektua?
2. Egoeraren analisia. Nortzuk gara eta non gaude?
  - 2.1. Ikastetxearen eta inguruaren ezaugarriak
  - 2.2. Ikastetxearen ibilbidea hizkuntzei dagokienez
3. Ikastetxearen hizkuntza helburuak. Zer nahi dugu?
  - 3.1. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren printzipioen zehaztapena hizkuntzei dagokienez
  - 3.2. Planteamendu eleanitza
  - 3.3. Helburuak
4. Ikastetxearen Hizkuntza Planteamendua
  - 4.1. Harremanen, kudeaketaren eta antolaketaren eremua. Norekin eta zein hizkuntzatan?
  - 4.2. Eremu didaktiko-metodologikoa. Nola irakasten ditugu hizkuntzak?
5. Plan Estrategikoa. Zer egingo dugu?
  - 5.1. Harremanen, kudeaketaren eta antolaketaren eremua
  - 5.2. Eremu didaktiko-metodologikoa
6. Hizkuntza Proiektuaren ebaluazioa

# 1- SARRERA

Hizkuntza Normalkuntza Proiektua duten ikastetxeentzako dago zuzenduta txosten hau. Hizkuntza Proiektua osatzeko normalkuntza ikuspegia eman diogu dokumentu honi, eta ereduak eskaintzea du xede. Beraz, Hizkuntza Proiektuaren gidaren atalak jarraituz, aukera izango duzu, atalez atal, zure ikastetxearentzako adibiderik egokienak hautatzeko, eta zeure ekarpenak egiteko.

## 2- EGOERAREN ANALISIA: NORTZUK GARA ETA NON GAUDE.

Bigarren atal honetan, gidak bi azpiatal proposatzen ditu: lehenengoan, ikastetxearen eta inguruaren hizkuntza ezaugarriak aipatu beharko genituzke. Bigarrean, aldiz, ikastetxeak, hizkuntzei dagokionez batik bat, egin duen ibilbidea idatzi beharko genuke. Hala ere, guk uste dugu beste azpiatal bat gehiago gaineratu beharko litzatekeela. Alegia, ikastetxeko ikasleek hizkuntzetako barne eta kanpo ebaluazioetan lortutako emaitzen laburpena. Ikus ditzagun hiru azpiatalak banan-banan:

### 2.1. Ikastetxearen eta inguruaren ezaugarriak:

Lehen azpiatal honetako datuak lortzeko, oso lagungarria izan daiteke, Ulibarri Programan sartuta dauden ikastetxeentzat behinik behin, BRANKA diagnosi tresnak orain dela bi ikasturte eman zituen datuak eta ondorioak: ikastetxearen ezagutza eta erabilera indize orokorrak, familienak, ikasleenak... Dena dela, Branka aplikazioak euskarari buruzko datuak jasotzen ditu soilik. Horregatik, komenigarria litzateke beste hizkuntzetako (ingelese...) datuak ere jasotzea (adb: zenbat irakasle ditugu ikasgaiak ingelesez emateko gai direnak?)

Besteak beste, honakoak aipatu genitzake:

- Herria eta ikastetxearen kokapena.
- Herriaren datu soziolinguistiko nagusiak (Branka, Eustat...)
- Ikastetxearen egoera linguistikoa.
  - Eremu instituzionalean, kanpoko harremanetan..., hizkuntza bakoitzak zein erabilera duen gaur egun (Branka)
  - Ikastetxeko familien hizkuntza tipologia (Branka)
  - Irakasleen hizkuntza gaitasuna (euskarari dagokionez, Branka. Beste hizkuntzetan, datuak jaso beharko ziren)
  - Irakasleak ez diren langileen hizkuntza gaitasuna (Branka)
  - Ikasleen ama hizkuntzen ezagutza eta erabilera indizeak. (Branka, Arrue...).

Jarraian, adibide bat:

### 2.1. Ikastetxearen eta inguruaren ezaugarriak

2.1.1. Herria eta ikastetxearen kokapena:

Donostia Gipuzkoako hiriburu eta udalerrri nagusia da. Halaber, Euskal Herriko hiri jendetsuenen artean laugarrena da, 180.291 biztanle baititu, eta Euskal Herriko

hiriburuetatik Donostiak du euskaldunen ehunekorik handiena: % 33,5. XXX ikastetxea Donostiako ikastola bada ere, Donostiako eta inguruko udalerrietako ikasleak eta familiak biltzen ditu. Multzo nagusia, lautik hiru (%77), donostiarra da. Bigarren multzo esanguratsua (%18), berriz, hernaniarra. Eta gainerakoak (%5), Astigarraga, Lasarte, Urnieta eta Usurbil udalerritako ikasleak dira. Ikastolari auzo donostiar ugaritatik ikasleak badatozkion arren, oinarri sendo eta zabalena Aiete auzoan du, familien %73, 5, hain zuzen ere.

#### 2.1.2 Herriaren datu soziolinguistiko nagusiak:

Eusko Jaurlaritzak 2006an eginiko inkestaren ondorioz, gaur egun egin daitekeen mapa soziolinguistikoa kontuan izanez, mapa honen bigarren gune soziolinguistikoan (elebidunak %20 eta %50 bitartean) kokatzen da Donostia. Hain zuzen, hiriburu honetan %40,5 dira elebidunak, euskal hiriburuetatik ehunekorik handiena du, baina Gipuzkoako elebidunen ehunekoaren batez bestekoaren azpitik dago, ia 13 puntuko aldearekin. Azpimarratzekoa da, Donostiako elebidunak (%40,5) erdaldun elebakarrak (%38,8) baino gehiago direla dagoeneko.

#### 2.1.3 Ikastetxearen egoera linguistikoa:

xxx ikastetxean D eredu eskaintzen da, beraz, ikastetxeko hizkuntza nagusia euskara da eta egoera guztietan erabiltzen da, bai ikasgelan, baita ikasgelatik kanpo (pasilloetan, patioan, jantokian, eskolaz kanpoko jarduera osagarrietan...).

Gaztelania ikasgai gisa lantzeaz gain, komunikazio-tresna moduan ere erabiltzen da hainbat egoeretan euskaraz ez dakitenekin.

Ingelesa ere ikasgai gisa lantzen da eta gainera, hurrengo ikasturteetan Bigarren Hezkuntzan arloren bat ingelesez emateko aukera aztertzen ari gara.

Frantsesak ere badu leku bat gure ikastetxean. Izan ere, DBHko 3.-4. eta DBHko 1.-2. mailetan eskaintzen dugu urtero aukerako irakasgai modura.

Ordezkaritza organo gorenari eta funtzionamendu organoei dagokionean, guztiak menperatzen dute euskara eta bilera eta formazio guztietan euskaraz parte hartzen da. Etorkizun baten euskaraz ez dakien bat egotekotan, bilera guztiak euskaraz egiten jarraituko dira eta bilerako partaidetako bat arduratuko da itzultzaile lanak egiten. Printzipioz akta guztiak euskaraz egiten dira, baina aurreko kasua emanez gero, aktak elebidunak izango dira.

Barruko dokumentazioa euskara hutsean sortuta dago, aldiz, gurasoei zuzendutako dokumentu guztiak bi hizkuntzetan idatzita daude, euskaraz eta gazteleraz, baina betiere lehentasuna euskarari ematen zaio, euskarazko testua goian edo ezkerrean kokatuta egoten delarik.

XXX ikastolako familia-tipologiak elebidunen ehuneko handiagoa du. Familia elebidun osoak (aita eta ama, euskaldunak) ikasleen %37 dira; familia erdaldun osoa (aita eta ama, erdaldun elebakarrak) ikasleen %28 dira; eta familia mistoak (aita edo ama, elebiduna) ikasleen %33 dira.

Irakasleen hizkuntza gaitasunari dagokionez, guztiok hitz egiten dugu gure egunerokotasunean euskaraz. Beraz, ahozko hizkuntzari zein idatziari dagokionez, guztiok menperatzen dugu hizkuntza behar bezala. Brankaren arabera, %90ak ezagutzen dugu ongi euskara hizkuntza, hala eta gutiz ere, %67,92ak bakarrik jasotzen dugu prestakuntza.

Irakasleak ez diren langileen hizkuntza gaitasunari dagokionez, organo gorenean irakasleek bezalaxe egoki moldatzen dira, beraien ama hizkuntza euskara baita. Beraz,

ahozko zein idatzizko gaitasun onak dituzte. Aldiz, jangelako langileei erreparatzen badiogu, guztiek ez dute euskara ama hizkuntzatat eta langileen %20ari kostatzen zaio euskaraz mintzatzea. Hauek gainera, ez dute prestakuntzarik jasotzen eta hizkuntzarekiko jarrera ezkorra adierazten dute.

Ikastetxe honetako ikasle gehienak euskaldun gutxi duten herrietan bizi dira, baina hala ere, batez beste, EAEko biztanleria baino udalerrri euskaldunagoetan.

Ama hizkuntzari dagokionez, ikastetxe honetan matrikulatutako ikasle erdien ama hizkuntza gaztelania da, eta beste erdiena euskara.

1.325 ikasleek jolaslekuan eta gela barruan behatutako hizkuntza-erabileraren datu orokorrak jasoko ditugu ondoren. Batez besteko datu orokorrak hauek dira:

Jolaslekuan ikasleen arteko elkarrizketa guztien % 55 egiten da euskaraz (%44,7 gazt.)

Gela barruan, aldiz, ikasleen arteko elkarrizketa guztien %79,8 egiten da euskaraz (%20,2 gazt.).

Jolaslekuko erabileran, %55,3ko batez bestekoaren atzean aniztasun handia dago: ikasleen heren bati (%34,7) behatutako elkarrizketa guztiak euskaraz izan dira, laurden bati (%26,5) behatutako guztiak gaztelaniaz; eta gainerakoei behatutakoak, neurri handiago edo txikiagoan, bi hizkuntzetan izan dira.

Gela barruko erabilera, askoz neurri handiagoan da euskaraz, eta %79,8ko batez bestekoaren atzean dagoen banaketa sinpleagoa da: ikasle gehienei (%55,9) elkarrizketa guztiak euskaraz behatu zaizkie, eta, aldiz, guztiak gaztelaniaz oso gutxiri (%4,8).

## **2.2. Ikastetxearen ibilbidea hizkuntzei dagokienez**

Bigarren azpiatal honetan, ikastetxearen “hizkuntza-historia” idatzi beharko genuke.

- Irakaskuntza eredu (A, B, D) bilakaera.
- Ikastetxeak azken urteetan izan duen familia tipologiaren bilakaera, eta horrek ekarritako ondorioak hizkuntzak irakasteko prozesuan.
- Ikastetxeak hizkuntzei lotutako proiektu edota programen parte hartzearen azalpena (HNP, Eleaniztasunerantz...).
- Aspektu metodologikoan azken urteetan egondako aldaketa nabarmenak (hizkuntza trataera bateraturantz egindako urratsak, hizkuntzen didaktikan azken urteetan eman diren aurrerapausoak, ikastaldeak osatzeko irizpideen aldaketak...).

Jarraian adibide bat:

### **2.2 Ikastetxearen ibilbidea hizkuntzei dagokionez**

#### **2.2.1. Irakaskuntza eredu (A, B, D) bilakaera:**

Eremu erdaldunean dagoela eta haur guztiak erdaldunak zirela kontuan hartuta, hasiera baten B eredu izan zen nagusi. Egoera hau izanda ere, ikastola baten izaera ez zen ahaztu eta euskarari aparteko garrantzia eman zitzaion, izan ere, gai garrantzitsuenak euskaraz irakasten baitziren. Hala ere, handik urte batzuetara, 96-97 ikasturtean, D eredu jarri zen martxan. Aldaketa honen arrazoia ikastolan egindako hausnarketa bat izan zen. Euskara bultzatu eta haur haiek euskaraz bizi zitezen lortu nahi izanez gero, beharrezkoa zen

ikastolako jarduera aldatzea eta euskara hutsean aritzea. Ume haien euskal eredu eta eremu bakarra ikastola zen eta horregatik aho batez erabaki zen aproposagoa zela D eredu abiatzea.

2.2.2. Ikastetxeak azken urteetan izan duen familia tipologiaren bilakaera eta honen ondorioak hizkuntzak irakasteko prozesuan:

Azken hamarkadan biztanleriaren joan-etorrien eta atzerriko etorkinen hazkunde handiaren eraginez, ikastetxeetako familien tipologia eraldatzen ari da. Fenomeno berri honi aurre egiten ari gatzazkio azken ikasturteetan: beste herrialde batzuetatik datozen ikasleen eskolatzeari, alegia. Euskara jakin ez, eta batzuetan gaztelania ere ez dakiten ikasleak ugaritzen ari dira geletan. Gure ikastetxean ere gora egin du nabarmen heldu berrien kopuruak: eskolako ikasleen % 9,7 inguru izatera heldu dira.

Hemen jaiotako ikasleekin ezarritako helburu bertsuak ditugu ikasle hauekin ere: EAE-ko bi hizkuntzak menderatzea eta atzerriko hizkuntzaren oinarrizko ezagutza izatea. Kontuan hartu behar da, baina, ikasle hauen abiapuntua ez dela berbera, eta ondorioz, hizkuntzaren jabe izateko epea aldatu egiten dela. Ikerketa gehienek 5-7 urteko epealdia ezartzen dute bigarren hizkuntza ikasteko, beti ere metodologia eraginkorra erabilita.

Etorri berriari talka emozional handia suposatu ohi dio hasierako egoera berriak. Gero, nork bere izaeraren araberrako estrategia propioak sortzen ditu honetara egokitu eta hizkuntza berriak ikasteko. Horregatik, patxadaz hartzen dugu prozesu hau, ikasle bakoitzaren egoeraz jabetuta eta sarri gertatu ohi den isiltasun-aldia errespetatuta. Ez gara itsutu behar lehenbailehen egindako murgilketak ekarriko dizkion onurei bakarrik begiratuta, ez horixe. Hau inportantea izanik ere, alderdi afektiboa da gakoa. Ez da presarik izan behar, denbora eman behar zaio ikasleari. Bere kultura identitatearenganako eta ama-hizkuntzarenganako interesa eta tratu polita erakusten dugula antzeman behar du; eta horrela, eta bakarrik horrela, proposatzen zaion hizkuntza berria ikastera “irekiko” da.

Ezinbestekoa da etorri-berriari harrera ona egitea, horretarako ezarrita daukagu Harrera Prozesu bat, non, bertan aipatzen diren jarraitu beharreko pausoak eta nori dagokion kasu bakoitzean.

Haur Hezkuntzan bereziki, egokitzen prozesua betetzeko denbora bat markatuta dago, eta Lehen Hezkuntzan lehenengo egunean HIPI irakaslea ikaslearekin egun osoan egoten da eta gelakideen artean arduraduna izendatzen da. Besteekin erabilitako irizpide berberak hartzen dira nagusiki ikasle hauen lana gauzatzekoan: besteekin elkarrekintzan eta arloetako lanen testuinguruan batik bat eskuratuko dute hizkuntza.

Elkarrizketa funtsezko prozedura bilakatzen da hasiera batean; partehartzea bermatzeko, adibide erraz eta argiak jartzeko... eta azken batean, eta hau ezinbestekoa da, ulertzen duela bermatzeko. Ikasleak lanaren muina beregana dezan saiatzen gara.

HIPIko errekurtsioa Lehen Hezkuntzako ikasleentzat da, beraz Haur Hezkuntzara datozen ikasleei errekurtsio hau ez zaie eskaintzen. Ikastetxeak ikasle hauen beharrezan ikusirik esparru hau bete nahian Haur Hezkuntzako irakasleek saio intentsibo bereziak antolatzen dituzte hizkuntza maila indartzeko.

HIPIak hizkuntza- edo harrera-gelan lan egin ohi du hein handi batean. Hemen euskarazko oinarrizko trebeziak landu ohi ditu bai goizeko lehen orduan antolatutako talde txikiko saioetan bai banan banako beste saioetan. Ikaslea, bestalde, ia hasieratik integratzen da gela arruntean. Hortaz, HIPIak gela arrunteko lan-guneetan egingo diren lanak ahalik eta lasterren egokituko ditu gelako irakaslearekin elkarlanean. Edukia ulergarriagoa egingo duten baliabideak erabiliko dira hasiera batean, irudien laguntzaz, kontzeptuak era



sinpleago eta argiagoan azalduz... Behin ikasleak gela arrunteko lanari aurre egiteko gutxieneko hizkuntza konpetentzia duenean, hemen lan egingo du era egonkorrean. Hizkuntza-gelan, indartu egingo dira gela arruntean lantzen ari diren kontzeptuak, eta modu honetan poliki-poliki era autonomoagoan lan egiten hasiko da ikaslea.

Bestalde, familiari ematen zaion informazioa ere zaindu egiten dugu. Hizkuntz helburuez eta seme-alaben prozesuaz auresan daitekeenaz hitz egiten dugu. Familiak barneratu behar du bere ama-hizkuntza mantentzeak eta hau indartzeak beste hizkuntzen jabekuntzarako duen onura. Horrez gain, familiak zer esan handia du ikasleak eskolako instrukzio-hizkuntzaz eraikitzen duen balorazioan, eta hau ere oso faktore eragingarria da.

2.2.3. Ikastetxeak hizkuntzei lotutako proiektu edota programen parte hartzearen azalpena: 1991n Ikastolen Elkartek proposatutako Eleanitz-English proiektua ere martxan jarri zen ikasturte hartan. Eredutik aldaketa eta Eleanitz-English proiektu honekin ikastolaren egunerokotasuna eta handik aurrerako jarduna irauli genuen, eta momentu hartako behar nagusietako bat ase genuen: haurrak euskarara murgiltzeko bitarteko guztiak jartzea, hain zuzen ere. Hala ere, oraindik euskara ikastolako eremura mugatuta zegoela ikusi zen eta horregatik, 90eko hamarkadan zehar Euskaraz Bizi proiektuan murgildu ginen, euskara gelatik eta ikastolatik ateratzeko. 2000. urtean Ikastolen sareak Ikastolen Hizkuntza Proiektua egitasmoa martxan jarri zuen eta xxx ikastolan horren beharra ikusi zen, izan ere, euskara bultzatzen saiatzeko aparteko laguntza baten beharrean aurkitu ginen. Hori zela-eta, egitasmo horretan murgildu eta horretan dihardugu xxx ikastolako Hizkuntza Proiektua sortzeko asmoz.

#### 2.2.4 Aspektu metodologikoan azken urteetan egondako aldaketak:

Hizkuntzen tratamendu bateratuari dagokionez, ikasketak ekinaren bitartez eraikitzen ditugu. Hau oso sustraituta dago Amara-Berri heziketa sisteman, izan ere, lanaren oinarri baitira elkarrekintza, harremana, komunikazioa, testuinguru sozialak.... Hauetan eta hauen bidez eraikitzen du ikasleak bai ikasketa bai hizkuntza. Ekinean, gauzak ikasteko tresna bihurtzen da hizkuntza, hau da, izaera instrumentala hartzen du, eta ikaskuntzaren muina eta tresna bilakatzen da aldi berean.

Hizkuntzen bitartekari izaera da nabarmendu nahi duguna; gure lanaren muina hizkuntzaren alderdi formalean baino, honen alderdi funtzionalean kokatzen baitugu; beraz, gelan proposatu ohi diren aktibitateek berezko funtsa dute, ez ohi dira bideratzen soilik hizkuntza objektu gisa ikastera.

### **Hizkuntzen didaktikan azken urteetan eman diren aurrera pausoei dagokionez:**

#### **- Ahozko hizkuntzaz**

Ahozko eta idatzizko erregistroak bereizten ditugu: ez dugu hitz egiten idazten den bezala, ez eta alderantziz ere, beraz, bi moduak lantzen dira: ahozkoa eta idatzizkoa.

Ahozko hizkuntza ez dugu ohiko gaien gaineko solasetara mugatzen. Hau oinarria izan arren, helburuak maila formalagoetan kokatzen ditugu: hizkuntza deskontestualizatuan eta landuan trebatu nahi ditugu ikasleak.

Euskararen kasuan, kontuan izanik inguruan jasotzen den hizkuntza-eredua ez dela sarri egokiena izaten, saiakera berezia egin ari gara hizketa arruntaren trebakuntzan. Ikasketa formalagoko ekintzetan ahozko moduak eta idatzizkoak elkar elikatzen dira. Hauetan, ahozko erregistroa idatzizkora hurbiltzen zaigu, eta era honetan, hizkuntza idatzia oso tresna lagungarri bilakatzen da ahozko hizkuntza lantzeko.



Elkarrizketa (solasa) funtsezko prozedura bilakatzen zaigu hizkuntzen eraikuntzan. Hauek bi solas mota bereizten dituzte:

- Solas interakzionala eta solas transakzionala. Solas interakzionala eguneroko erritoren eta ohituren inguruan sortzen dena: gelan sartu orduko, harrera, biribilean eguneroko kontuak, etorri ez direnak, datak, jantziak,... Solas honetan: gai arinak tratatzen dira eta eguneroko kontuekin zerikusia dute; hiztegi orokorra erabiltzen da; testuinguru ezagun eta konkretuan ematen da; esan edo gertatu behar dena aurretik erraz pentsa daiteke; gakoa, azken batean, ulertzean datza. Solas mota hau bi etapatan sortzen eta erabiltzen den arren, oso baliagarria zaigu Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako aurreneko zikloan, ohizko egoerak eta bizipenak sorrarazten digulako solasean. Irakasleak solas honetan behar bezala erantzuteko prestatu beharra dauka: batetik, irakasten ari den hizkuntzaren kontzientzia izan behar du, zeri eman indarra momentu bakoitzean, zer errepikatu, zer azaldu, ikasle bakoitzaren prozesuaz jabetu...; eta bestetik, solas-dinamika hauetan bere esku-hartzearen jabe egiteko eta, ahal den neurrian, hobetzeko.
- Solas transakzionala, bestalde, ekintza garatuagoa da. Lanaren inguruan egiten da, hiztegi espezializatua erabiltzen da, zehaztasunez hitz egin behar da eta guztia ulertzea inportantea baita, mezuaren transmisioa da helburua. Harremanerako erabiltzen den hizketaz gain, hizkuntza landuagoa eskatzen du solas mota honek, ezinbestekoa eskola-ikasketak burutzeko. Solas mota hau bi etapatan egiten den arren, garapen handiena Lehen Hezkuntzan ematen da.

#### **- Ipuinaren erabilpenaz, antzezpenez**

Solasaz gain, ipuinari, antzezpenei, aurkezpenei... denbora luzea eskaintzen diogu. Entzumenei, errepikapenei, testua buruz ikasteari,... ekintza hauei indar handia ematen diegu hizkuntza finkatzeko eta aberasteko duten balioagatik.

#### **- Irakurmenaz eta idazmenaz**

Idatzizko testuaren lana egoera komunikatibo funtzional eta esanguratsuetan ardatzen dugu eta, ondorioz, genero eta mota askotako testu errealak erabili ohi ditugu ohiko jardueretan. Kontua ez da, beraz, ariketak egitea, benetako komunikazio ekintzak burutzea baizik.

Haur Hezkuntzan ematen zaio hasiera irakur-idazketa prozesuari. Ikasleak testu idatziarekin duen lehen hurbilpen honetan hainbat eginkizun proposatzen zaizkio: soinuekin jolastuz, fonemak aurkezten doaz. Fonema bakoitzarekin hainbat ekintza lantzen dira (Kontzientzia fonologikoa landuz) baita aurreidazketa eta aurreirakurketarako ekintzak ere.

Izen propioa dugu abiapuntua. Izena nola idatzi ikasita, kideen izenekin antzekotasunak eta ezberdintasunak bilatuz ondorioak ateratzen hasten da ikaslea, eta honekin batera hizkuntza idatziari buruzko aurrezagutzak eraikitzen doa. Izenaren ondoren bere identitatea osatzen duten beste elementuak erabiltzen ditugu hainbat eratako aktibitateak egiteko, eta, bere ezagutzak zabaltzen doazen neurrian, haratago goaz gure proposamenekin. Beste egoera funtzionalak aplikatzen hasten gara: ohartxoak idatzi, zerrenda osatu, informeak burutu, ikasleek diktatutako testuak irakasleak kopiatu,... azken batean, norbere testu propioak sortzen jarri nahi dugu ikaslea.

Hizki larria da proposatzen dena idatzizko lehendabiziko urratsak emateko. Bost urteko gelan hizki xeherako pausoak ematen dira. Irakasleak jokatzeko duen paperaren garrantzia

azpimarratu nahi dugu. Ez diegu errore linguistikoei soilik erreparatzen, garrantzi handia du, baita ere, erabileraren egokitasunak, hizkuntza erregistroak, idazlearen intentzioak eta hartzailea kontuan hartzeak.

Ikastaldeak osatzeko irizpideei dagokionez, ondoko irizpidea kontuan hartuta elkartzen ditugu ikasleak bi urteko gelan: talde bakoitzean proportzionalki nahasten ditugu ikasle euskaldunak, ia-euskaldunak, gazteleradunak, eta besteak; eta modu honetan talde orekatuak sortzen ditugu.

Hiru urteko gelan taldeak berrikusten ditugu, eta, arazorik sortu ezean, talde hauek finkatuta gelditzen dira Haur Hezkuntza etapa osorako.

Azkenik, Lehen Hezkuntzan taldeak berregin egingo dira, hasieran aipatutako irizpideak aplikaturik.

### **2.2.1. Hizkuntzen irakaskuntza: antolamendua, hizkuntzak eta hizkuntzak ez diren arloetan.**

*Sarreran esan dugunez, azpiatal hau ez dator Gidan jasota. Hala eta guztiz ere, garrantzitsua iruditzen zaigu informazio hau proiektuaren diagnosian sartzea, hurrengo ataletan ikastetxeko ikasleen irteera profilak ondo definitzeko.*

Azpiatal honetan ikastetxeak ondorengo datuak jaso eta laburtu beharko lituzke

- Azken urteetako Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzak, hizkuntzei dagozkienak gutxienez, horien bilakaera azken urteotan, eta ISEK bera duten ikastetxeetako batz besteko emaitzak alderatuta.
- Bestelako kanpo ebaluazioetako emaitzen laburpena ere, atal honetan jaso genezake (PISA, Hautaprobak...)
- Barne ebaluazioetako emaitzak ere, atal honetan aztertu daitezke (emaitza akademikoak)

### **2.2.1. Hizkuntzen irakaskuntza: antolamendua, hizkuntzak eta hizkuntzak ez diren arloetan.**


Gure ikasleen komunikaziorako gaitasuna aztertzeko, kanpo ebaluazio biri erreparatu diegu: DBHko 2. mailan egiten den Ebaluazio Diagnostikoari batetik, eta batxilergoa bukatutakoan egiten den Hautaprobari bestetik. Hala ere, bietan hutsune bera aurkitzen dugu: ez dela neurtzen ikasleen ahozko adierazmena. Beraz, komunikazioaren dimentsio garrantzitsu hau ikerketatxo honetatik kanpo geratzen da. Honek beronek beharizan bat adierazten digu. Alegia, ikastetxeak martxan jarri beharko dituela ikasleen ahozko adierazmena neurtu eta ebaluatzeko mekanismoak.

#### **2.2.2.1 Ebaluazio Diagnostikoa (LH 4.maila)**

##### **HIZKUNTZA KOMUNIKAZIOA EUSKARAZ**

Hasieran bilakaera goranzkoa izan arren, azken zortzi urteetan beheranzko joera izan du. Honek hizkuntza-komunikazioa euskaraz lantzeraz eramatzen gaitu.


2.1.1. grafikoa: LHko 4. maila. ED09-ED10-ED11-ED13-ED15. Emaitza orokorren bilakaera Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian.



\* Grafikoa eskala 200ean hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezten.

Beste grafiko honetan euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzen bilakaera ikus daiteke geruzen arabera. Hau da, ikastetxe publikoak alde batetik, eta itunpekoak, bestetik. Geruza guztiek murriztu egiten dituzte emaitzak 2015eko edizioan, 2013ko aplikazioarekin alderatuta, A ereduak izan ezik, nahiz eta esanguratsua ez izan.

2.1.3.a. grafikoa: LHko 4. maila. ED09-ED10-ED11-ED13-ED15. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzen bilakaera geruzen arabera.




### HIZKUNTZA KOMUNIKAZIOA GAZTELANIAZ

Gure emaitzak ez dira txarrak, baina gaztelanian ere ikusten da azken urteetan, gutxi bada ere, beheranzko joera dagoela DBHko 2. mailan.

Beste grafiko batean ikus daitekeenez, 2015eko proban gure ISEK bera duten ikastetxeetako batzuek emaitza baino APUR BAT BAXUAGOA lortu dugu.


16. grafikoa. 2009-2010-2011-2013-2015eko emaitzen bilakaera. Hizkuntza-komunikazioa gaztelaniaz .



### HIZKUNTZA KOMUNIKAZIOA INGELESEZ


Hizkuntza honetan Ebaluazio Diagnostikoak ez digu ematen bilakaera esanguratsua, birritan baino ez delako egin. Emaitzak ez dira txarrak, gure ikasleak erdiko mailan kokatzen direlako, baina jaitsiera txikia sumatzen da azken probaren emaitzetan, bai LHko 4. Mailan, eta baita DBHko 2.mailan ere.

2.3.1. grafikoa: LHko 4. maila. ED11-ED15. Emaitza orokorren bilakaera Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian.




\* Grafikoaren eskala 200ean hasten da, puntuazioen arteko aldeak hobeto nabari daitezten.

31. grafikoa. Hizkuntza-komunikazioa ingelesez. 2011-2015eko emaitzen bilakaera.




Ingelesezer ere, 2015eko proban ez dugu lortu gure ISEK bera duten ikastetxeetako batzaz besteko emaitzetara heltzea. **NABARMEN BAXUAGO** gaude!

28. grafikoa. Hizkuntza-komunikazioa ingelesez. Ikastetxearen kokapena ikastetxe guztiekin konparatuta, ikastetxe bakoitzeko batez besteko ISEK mailaren arabera.



### 2.2.2.2 Hautaprobak (BATX-2)

GURE IKASTETXEKO HAUTAPROBETAKO BATAZ BESTEKO KALIFIKAZIOA



Batxilergoa amaitutakoan gure ikasleek Hautaproban lortzen dituzten emaitzak ikusita, badaude kezkatzeko bi datu:

- **Euskara** proban emaitza onak izaten dira (D ereduko ikasleek, oro har, emaitza altuak lortzen dituzte). Baina azken urteotako **joera oso kezagarria da**, etengabe beheranzkoa baita. Zalantzarik gabe, hobetu beharreko ahulezia.
- **Ingeles** probako emaitzak ez dira onak izaten. Hizkuntza honetan ere, **gabezia** azalerazen dute emaitzek.

### 3. Ikastetxearen hizkuntza-helburuak. Zer nahi dugu?

#### 3.1. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren printzipioen zehaztapena hizkuntzei dagokienez

*Adibideak Hezkuntza proiektutik jasoak:*

- Ikastetxea ikasleek bizi duten errealitatera hurbiltzea eta jendeartean, kulturaren eta familiaren ingurunearekiko sentikor bihurtzea.
- Hezkuntza komunitateko sektore guztien arteko komunikazioa bermatzea, HNP kontuan izanik.
- LH etapa amaieran, bi hizkuntza ofizialetan B1 maila izango dute ikasleek; atzerriko 1. hizkuntzan, A2 eta, 2. hizkuntzan, A1
- DBH etapa amaieran bi hizkuntza ofizialetan B2 maila izango dute ikasleek; atzerriko 1. hizkuntzan, B1 eta, 2. hizkuntzan, A2
- Batxilergo amaieran, bi hizkuntza ofizialetan C1 maila izango dute ikasleek; atzerriko 1. hizkuntzan, B2 eta, 2. hizkuntzan, B1

- Ikastetxeak euskal hiztunak hezi nahi ditu, etengabe eraginez euskararekiko motibazioan eta harekiko jarrera baikorrean.
- Ikastetxeak, Hezkuntzaren eta Hizkuntz Proiektuaren ardatza euskara duela, pertsona euskaldun eleaniztunak hezi nahi ditu, hartara, beste hizkuntzen beharrezko ezagutza eta erabilera erdiestea bideratuko du. Ildo horretatik, Gaztelania ikastetxeko bigarren hizkuntza izango da eta Ingelesa, hirugarrena.
- Ikastetxeko hizkuntza guztiekiko errespetuzko jarrera landuko da eskolako kideen artean.
- Euskalduna izanik, ikasleak euskalduntzeaz gain, euskara beraren normalizazioa bilatzen duen eskola izango da.
- Euskara eta euskal kultura sustatzen duen ikastetxea gara eta ingurune eleanitz eta kultur aniztasuna bere egiten dituen.
- Euskalduna: euskara izango da komunikazio hizkuntza. Euskal ohiturak eta euskal kultura ere bultzatuko dira.
- Euskararen erabilerarekiko erantzukizuna sustatuko duen eskola.
- Euskararen normalizazioa helburu izanik, euskara izango da ikastetxeko eremu eta estamentu guztietako komunikazio hizkuntza (tokiaren arabera birdefinitu).
- Euskal Kultura: gure ikasleek euskal kultura ezagutu, aintzat hartu, balioetsi eta kultura horren partaide sentitu daitezten sustatzen duen eskola izango da.
- Eleanitza: euskaldun eleanitzak lortuko dituen ikastetxea nahi dugu, mundu zabalean autonomoki aritu ahal izateko, baita kultur ezberdinetatik datozen ikasleen hizkuntza guztiak aitortu eta balioesteko ere.
- Ikasleen hizkuntza aniztasuna ondo kudeatuko duen ikastetxea lortu nahi dugu; ikasle guztiek hizkuntza helburuak betetzen dituztela bermatzen duena; hizkuntza zailtasunak gainditzeko egokitzapenak egingo dituen.
- Ikastetxeko langileen hizkuntza prestakuntzari garrantzia emango dion ikastetxea.

## 3.2. Planteamendu eleanitza

*3.1 eta 3.3. puntuetan jasota daude.*

## 3.3. Helburuak

**Helburu didaktikoak:**

### 1. Gaitasun komunikatiboa garatzeko:

- Euskara etapa eta ikasmila guztietan, ikasgai eta ikasteko tresna izango da. Ikastetxeko harremanetarako hizkuntza izango da. (zehaztu)
- Era berean, ahozko erregistro formala lehenetsiko da ikasgelako jardun curricularrean.
- Gaztelania LHko ... mailatik hasi eta ikasgaia izango da
- Ingelesa ..... mailatik hasi eta ikasgaia izango da. LHko ...mailatik aurrera ikasteko tresna izango da:
- Alemaniera / Frantsesa: aukerazko ikasgaia izango da .....

### 2. Taldekatzeak egiteko:

- Etxetik euskaldunak direnak eta erdaldunen kopurua irizpide moduan hartuko da, talde egokiak egin ahal izateko.

### 3. Ikasle etorkinekin lantzeko:

- Hasieran ikaslearen gaitasun komunikatiboa ebaluatuko da ikastetxeko hizkuntzetan eta, bereziki, euskaraz. Horrela “Harrera plana” abian jarriko da euskarazko gaitasun komunikatiboa garatu ahal izateko behar duen laguntza planifikatuz eta garatuz.

### 4. Hizkuntzak ez diren arloetarako:

- Arlo /irakasgaiari dagozkion konpetentziak garatzeko, entzumena, irakurmena, mintzamina eta idazmena landuko dira, arloari dagozkion testu-generoak landuz.

### 5. Irakasleen prestakuntzarako:

- Euskararen hobekuntzarako prestakuntza, ahozkoa lehenetsiz.
- Prestakuntza didaktiko-metodologikoa hizkuntzetan eta hizkuntzak ez diren arloetan.
- Atzerriko hizkuntzaren prestakuntza
- Iraleren eskaintza banakako nahiz taldeko prestakuntzan

### Egindako diagnosietatik abiatuz, planteatzen diren helburuak:

- Gurasoekiko harreman hizkuntza definitzea HNP kontuan hartuz
- Ikasleen irteera profila, hizkuntzen dimentsio bakoitzean (ahozko eta idatzizko ulermena, ahozko eta idatzizko adierazpena), zehaztea.
- Arlo /Irakasgai guztietan ahozkotatasuna lantzea.
- Ikasgelako ahozko jardun curricularrean Euskararen erregistro formala erabiltzea eta herri hizkera, eremu informalean.
- Ahozko azalpenaren ebaluazio-irizpide eta adierazleak arlo /irakasgai guztietan adostea
- Hizkuntzen arteko koordinazioa eta koherentzia bultzatzea, HTBa lehenetsiz
- Hizkuntzetan ebaluazio bateratua adostea irakurmenean, idazmenean, entzumenean eta mintzamenean.
- HNP 14-18tik atera daitezkeen helburuak osatu

### Adibidea:

| <b>XXX ikastetxearen Hezkuntza eta Hizkuntza Proiektuen ardatza euskara izanik ere, beste hizkuntzen beharrezko ezagutza eta erabilera bermatu nahi ditu, ikasleak eleaniztunak izan daitezten.</b>       | <b>XXX ikastetxeak euskararen eta euskal kulturaren transmisioa, garapena eta zabalkundea ziurtatu nahi ditu, bai eta, horretarako, hezkuntza-komunitatearen harremanetan euskara erabiltzea bermatu ere.</b>              | <b>XXX ikastetxeak euskararen normalizazio-prozesuaren eragile izan nahi du inguruko komunitatean, eta, horretarako, bestelako gizarte-eragile zein askotariko elkarteekin lankidetzan jarduteko borondatea du.</b>                             |
|---|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eleaniztasunaren egitasmoa zehazteko eta garatzeko egin beharreko moldaketak zein izan litezkeen antzeman, eta bultzatu</li> <li>• Gaitasunak kontuan</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasleen arteko harremanak euskaraz izan daitezten ahalegindu</li> <li>• Ikastetxeko giroa euskalduna izateko neurri egokiak hartu</li> <li>• Ikastetxeko gobernu- eta</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskal Herriko hizkuntza propioa ahalik eta eremu gehienetan erabiltzeko konpromisoa azaldu, eta gure kultura-ondarea ezagutu, estimatu eta defenditzen, kontserbatzen eta hobetzen lagundu</li> </ul> |



|  |  |  |
|--|--|--|
| <p>hartuta, hizkuntzen curriculumak sortu</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskaraz eta gaztelaniaz, ahozko zein idatzizko mezuak ulertu eta ekoitzi, autonomiaz eta sormena erabilia</li> <li>• Ingelesari dagokionez, oinarriko komunikazio-esparruetan gertatzen diren ohiko egoerak eta ahozko zein idatzizko diskurtsoak ulertu eta ekoitzi</li> <li>• Hizkuntzen Trataera Bateratuari heldu</li> </ul> | <p>funtzionamendu-organoetan gauzatzen diren harremanetan euskara nagusi izan dadila indartu eta bideratu</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastetxeko dokumentazioan erabilitako euskara gaurkotu, eta egoki eta zuzen idazten saiatu</li> <li>• Euskaldunak ez diren familietan euskararekiko zaletasuna eta errespetua landu, eta familia euskaldunetan harremanak euskaraz izan ditzaten bultzatu</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskal kultura-ekimenak sortu edo zabaldu, eta beste gizarte-erakundeek proposaturikoetan parte hartu</li> <li>• Euskararen normalizazioaren alde ari diren erakundeekin elkarlanerako harremanak ezarri</li> <li>• Administrazioako erakundeekin izaten diren harremanetan, euskara ahalik eta gehien erabili</li> <li>• Ikastetxeak gizabanako euskaldunak hezi nahi ditu euskararekiko motibazioa eta jarrera positiboa dutenak</li> </ul> |
|--|--|--|

### **Hizkuntza- eta kultura-aniztasunarekin lotutako helburuak:**

Hizkuntza- eta kultura-aniztasuna herriaren eta norbanakoen eskubidetzat eduki eta onartu; eskubide horretaz baliatzean, errespetuzko eta konpromisozko jokabidea agertu, eta diskriminazioak, sortuz gero, gaitzetsi eta gainditzen ahalegindu.

### **Ikastetxearen diagnostikoarekin lotutako helburu zehatzak**

Ikastetxeak, bertan irakasten diren eta irakasteko erabiltzen diren hizkuntzetan (euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa), ikasleen hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia garatu eta hobetu nahi du indarrean dagoen curriculum-markoak zehatutakoarekin bat.

Halaber, ikastetxean honako helburu hauek lortu nahi ditugu:

- Ahozko euskararen erabilera sustatzea ikastetxeko harremanen hizkuntza gisa.
- Ahozko hizkuntza lantzea arlo eta ikasgai guztietan.
- Ahozko hizkuntza ebaluatzeko irizpideak eta tresnak adostea, arlo eta ikasgai guztietan.
- Hizkuntza-esparruko arlo guztien arteko koordinazioa hobetzea, metodologia koherente eta bateratua erabiliz.
- Hizkuntza guztietan hizkuntza-trebetasunak (hitz egin, solasean aritu, irakurri, idatzi, entzun...) modu koherentean eta bateratuan ebaluatzea.

Eta helburu gehiago:

- Ikastetxeak nahi du Hezkuntzaren eta Hizkuntz Proiektuaren ardatza euskara izatea eta pertsona euskaldun eleaniztunak hezte, hartara, beste hizkuntzen beharrezko ezagutza eta erabilera erdiesteko.
- Euskara eta euskal kultura sustatzen duen ikastetxea izatea eta ingurune eleanitza eta kultura-aniztasuna bere egiten dituen.
  - Euskalduna: euskara izatea komunikazio hizkuntza.
  - Euskal kultura: gure ikasleek euskal kultura ezagutu, aintzat hartu, balioetsi eta kultura horren partaide sentitu daitezten sustatzen duen eskola izatea.
  - Eleanitza: euskaldun eleanitzak lortuko dituen ikastetxea izatea, mundu zabalean autonomoki aritu ahal izateko, baita kultur desberdinetatik datozen ikasleen hizkuntza guztiak aitortu eta balioesteko ere.

- Ikasleen hizkuntza aniztasuna ondo kudeatuko duen ikastetxea izatea; ikasle guztiek hizkuntza helburuak betetzen dituztela bermatzen duena; hizkuntza zailtasunak gainditzeko egokitzapenak egingo dituen.
- Euskararen normalizazioa helburu izanik, euskara izatea ikastetxeko eremu eta estamentu guztietako komunikazio hizkuntza (tokiaren arabera birdefinitu).
- Ikastetxeak euskal hiztunak heztea, etengabe eraginez euskararekiko motibazioan eta harekiko jarrera baikorrean.
- Ikastetxeko hizkuntza guztiekiko errespetuzko jarrera lantzea.
- Ahozkoitasuna lantzen duen eskola izatea nahi dugu:
  - Arlo/irakasgai guztietan ahozkoitasuna lantzea.
  - Ikasgelako ahozko jardun curricularrean euskararen erregistro formala erabiltzea eta herri hizkera, eremu informalean.
  - Ahozko azalpenaren ebaluazio irizpide eta adierazleak arlo/irakasgai guztietan adostea.
- Hizkuntzen arteko koordinazioa bultzatzea, HTB-a lehenetsiz.
- Ikastetxeko hizkuntzetan ebaluazio bateratua adostea irakurmenean, idazmenean, entzumenean eta mintzamenen.
- Gurasoekiko harreman hizkuntza definitzea HNP kontuan hartuz.
- Gurasoen inplikazioa lortzea, hizkuntza-jarreretan kontzientzia izan dezaten.

Eskolatze amaierarako hizkuntzen lorpen –mailara iristea:

|                   | <b>LH</b> | <b>DBH</b> | <b>Batxilergoa</b> |
|-------------------|-----------|------------|--------------------|
| <b>Euskara</b>    | <b>B1</b> | <b>B2</b>  | <b>C1</b>          |
| <b>Gaztelania</b> | <b>B1</b> | <b>B2</b>  | <b>C1</b>          |
| <b>Ingelesa</b>   | <b>A2</b> | <b>B1</b>  | <b>B2</b>          |
| <b>Frantsesa</b>  |           | <b>A2</b>  | <b>A2</b>          |

Oharra: zerrenda hau ikastetxeko HN plangintzatik atera daitezkeen helburuekin osa daiteke.

## 4- Ikastetxearen Hizkuntza Planteamendua

### 4. Ikastetxearen Hizkuntza Planteamendua

#### 4.1. Harremanen, kudeaketaren eta antolaketaren eremua. Zer hizkuntza erabiliko dugu?

- Hizkuntzen erabilera ikastetxeko barneko eta kanpoko komunikazioetan
- Hizkuntza-paisaia
- Baliabideak
- Lan-harremanak

#### 4.2. Eremu didaktiko-metodologikoa. Nola irakasten ditugu hizkuntzak?

- Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia garatzeko printzipio didaktiko-metodologikoak
- Hizkuntzak arlo ez linguistikoetan
- Hizkuntzak arlo linguistikoetan
- Ikasleen hizkuntza-aniztasunari erantzuna
- Irakasleen prestakuntza

HNPtik ekarpen orokorrak:

### 4.1- Harremanen, kudeaketaren eta antolaketaren eremua.

Atal honetan HNPren Eremu instituzionaleko datuak eta Kanpo Harremanak atala erabil ditzakegu.

### 4.2- Eremu didaktiko-metodologikoa.

Atal honetan erabaki hauek adosteak garrantzia hartzen du:

- Metodologia eta material egokiak.
- Ebaluazio-irizpideak.
- Euskararen erregistroak: formala eta informala.
- Ahozkoaren lanketa, hizkuntza arloetan eta hizkuntzak ez diren arloetan.
- Hizkuntzak ez diren arloetan: arloari dagokion ahozko eta idatzizko ulermena eta adierazpenaren lanketa.
- Hizkuntza bakoitzaren irakaspena : zein arlo, metodologia, ebaluazioa, sarrera goiztiarra...
- Hizkuntzaren gizarte-dimentsioa lantzeko estrategiak (hizkuntza jarrerak)

# Ikastetxeen eredu/adibideak:

## A ikastetxea: (gida)

### **4.1- Harremanen, kudeaketaren eta antolaketaren eremua.**

#### **Hizkuntzen erabilerari buruzko irizpideak**

Gure ikasleek euskaldun eleaniztunak izatera ailegatu daitezen nahi badugu, ikasleen eskolaz kanpoko hizkuntza-ingurunea nolakoa den ikusita, eskolak ziurtatu beharko die euskaraz jarduteko egoera asko, askotarikoak eta gero eta konplexuagoak. Horretarako eskolak euskararen erabilera naturala errazten duen ekosistema lagungarri bihurtuko dugu; hots, euskararen erabilera natural eta funtzionalerako gune esanguratsua izan dadin ahaleginduko gara.

Irakasleok ikasleekiko harremanetan euskaraz arituko gara, gelan (gaztelaniaz eta ingelesez ematen diren jakintza arloetako irakas-jardueretan izan ezik) zein gelaz kanpo. Halaber, irakasle on arteko harremanak euskaraz garatuko ditugu, lan kontuetakoak zein bestelakoak, baita langile ez-irakasleekin eta euskaraz ulertzen duten familiekin ere. Erabiltzaile aktibo eta erabileraren eredu ez ezik, erabilera-eragilearen rola ere jokatuko dugu.

#### **Lankidetzaharremanak**

Herriko erakundeekin eta eragileekin elkarlanean arituko gara; gure ikasleek, eskolaz kanpo ere, euskaraz jarduteko aukera ugari eta askotarikoak izan ditzaten. Izan ere, jakin badakigu gurea bezalako hizkuntza-ingurunetan bizi diren gazteen hizkuntza-gaitasunean eta hizkuntza-erabileran zenbateko eragina duen aisialdi antolatuko jardueren hizkuntzak.

Haur eta gazteei eskaintzen zaizkien aisialdi-zerbitzuak (liburutegia-mEDIATEKA, haurtxokoa, gaztelekua, astialdi-taldeak...), jarduera iraunkorrak (kirola, tailerrak...) eta ekitaldiak (proiektzioak, ikuskizunak...) euskaraz izan daitezen eragingo dugu jarduera horien antolatzaileengan. Jarduera horiek euskaraz eskaini ez ezik, euskararen erabilerarako abaguneak ere izan daitezen; jarduerak gidatzeaz arduratzen diren profesionalen sentsibilizazio eta prestakuntza bereziki garrantzitsua da. Profesional horiek hizkuntza dinamizatzaile izateko behar duten prestakuntza jaso dezaten eskatuko diegu udal zerbitzuei.

Ikasleek herrian sortzen diren erabilera-aukerak baliatu ditzaten, sentsibilizazio-lanak egingo ditugu ikasleekin beraiekin eta beren familiekin, eta, hala, jarduera horiek euskaraz garatzeak haien hizkuntza-prestakuntzan eta -sozializazioan duen garrantzia konpartituko dute.

### **4.2- Eremu didaktiko-metodologikoa. Hizkuntzak nola ikas-irakasten ditugu?**

#### **a- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna garatzeko printzipio pedagogikoak.**

## Hizkuntzen plangintza orokorra:

- **Euskara** izango da ikasgai eta ikasbide, maila eta kurtso guztietan. Murgiltze-programen prozedurak eta estrategiak baliatuko ditugu euskara H2 dutenekin, eta mantentze programarenak H1 dutenekin. Gainera, komunikazio-hizkuntza izango da ikasleekiko harremanetan eta haiei dagozkien jardueretan.
- **Gaztelania:** ikasgai izango da LHko 3. mailatik aurrera. Gainera, HHn eta LMHko lehen zikloan, gaztelaniazko komunikazio-gaitasuna garatzeko lan pertsonalizatua (LP) egingo da behar duten ikasleekin.
- **Ingelesa:** Ikasgai izango da HH 4u.-tik aurrera. Ikasbide ere izango da LHko 5 eta 6. mailetan, Arte Hezkuntza emateko, eta DBHko 3. eta 4.etan Gizarte Zientziak emateko. Gela barruko komunikazio-hizkuntza ere izango da ikas-irakaskuntza jarduera horietan.
- **Frantsesa:** hautazko (H) ikasgaia izango da, DBHn.
- Gure ikasleen **bestelako H1ak:** presentzia izango dute ikastetxeko hizkuntza-paisaian eta ekitaldi nagusietan. Gainera, gelako zenbait jardueratan ere tokia egingo zaie.

| ETAPA/ Kurtsoa                                     |     | EUSKARA           | GAZTELANIA | INGELESA       | FRANTSESA  |
|--|-----|-------------------|------------|----------------|------------|
| <b>HAUR HEZKUNTZA</b><br>25 saio                   | 2 u | Era globalizatuan | LP         |                |            |
|  | 3 u | Era globalizatuan | LP         |                |            |
|  | 4 u | Era globalizatuan | LP         | 2 saio         |            |
|  | 5 u | Era globalizatuan | LP         | 2 saio         |            |
| <b>LEHEN MAILAKO HEZKUNTZA</b><br>25 saio          | 1   | Era globalizatuan | LP         | 2 saio         |            |
|  | 2   | Era globalizatuan | LP         | 2 saio         |            |
|  | 3   | 4 saio            | 4 saio     | 3 saio         |            |
|  | 4   | 4 saio            | 4 saio     | 3 saio         |            |
|  | 5   | 4 saio            | 4 saio     | 4 saio (2 + 2) |            |
|  | 6   | 4 saio            | 4 saio     | 4 saio (2 + 2) |            |
| <b>DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA</b><br>30 saio | 1   | 4 saio            | 4 saio     | 4 saio         | H (2 saio) |
|  | 2   | 4 saio            | 4 saio     | 4 saio         | H (2 saio) |
|  | 3   | 4 saio            | 4 saio     | 6 saio (3 + 3) | H (2 saio) |
|  | 4   | 4 saio            | 4 saio     | 6 saio (3 + 3) | H (2 saio) |

## Ikasleak taldekatzeko irizpideak

Ikasle-taldeak eratzeko orduan, zenbait irizpide baliatzen ditugu: ikasleen familia-hizkuntza edo H1, neska-mutilen kopurua orekatua izatea, baita ikasle etorri berriena edo berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleena ere, maila berean neba-arrebaren bat izatea...

Taldeak eratzeko baliatzen ditugun hizkuntza-irizpideek hau bilatzen dute: ikasle guztiei beren ezaugarri eta beharrianetara egokitutako hezkuntza- eta hizkuntza-erantzuna ematea. Eta, honela:

- Input egokituia jasotzeko eta outputa emateko aukera aproposak eskaintzea, bai euskara H2 duten ikasleei, baita H1 dutenei ere.
- Euskara H2 duten ikasleei H1 dutenekin interakzioan euskaraz jarduteko aukera nahikoa ziurtatzea. Interakzio hori komunikazio-gaitasunaren garapenean lagungarri suertatuko zaielakoan.
- Haien arteko interakzio hori euskaraz eman dadin baldintzarik egokienak sortzea.
- Ikasle guztiek ikus dezaten ikastetxea euskararen erabilera naturalerako gune esanguratsu gisa; eta, honela, euskara H1 duten ikasleek euskaraz aritzeari eutsi diezaioten, hori da kodea alda ez

dezaten, eta euskara H2 dutenek, berriz, euskaraz aritzera animatzeko segurtasuna eta motibazioa sentitu dezaten.

Haur Hezkuntzan taldeak eratzeko orduan familia-hizkuntza da baliatzen dugun irizpide nagusietako bat. Hala, bi talde mota ditugu: “murgiltze” eta “mantentze” taldeak.

Matrikulatze-garaian, familia guztiek jasotzen dute informazioa taldeak eratzeko moduz eta horrela jokatzeko arrazoiaz. Lehen Hezkuntzako 3. mailan talde berriak eratzen ditugu, eta orduan ikasleen familia-hizkuntza ez dugu aintzat hartzen.

Haur Hezkuntza eta LMHko lehenengo zikloan zehar “murgiltze” eta “mantentze” taldeen arteko harremana zaindu egiten dugu: maiz elkartzen dira, haien arteko hizkuntza interakzioa aberasteko eta gizarte-integrazioa indartzeko.

## **b- Ikasleen hizkuntza-aniztasunari begira, nola erantzun?**

### **Gure hezkuntza-sisteman sartu berri diren ikasleak:**

Maila guztietan, ikasle hauek ikastetxera ailegatzean, ebaluatzen dugu haien hizkuntza gaitasuna (eskolako hizkuntza guztietan). Eta emaitzen arabera, duten mailari egokitutako “harrera-plana” diseinatu eta garatzen dugu, beren eskolaldia ondo garatzeko beharko duten hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna garatzeari begira.

Familiekiko ikasturte hasierako bileretan (bi HHn eta LMHn: bat zuzendaritza-taldearekin eta bestea tutorearekin), familia guztiek eman nahi diegun informazioa ulertzen dutela ziurtatze aldera, zenbait hizkuntza erabiltzen ditugu: euskara, gaztelania eta, beharrezkoa denean, ingelesa eta frantsesa era bai. Gainera, oinarriko informazioa emateko baditugu testu idatziak ikasleen familien artean ohikoen diren beste hizkuntzetan.

### **HPBekiko ikasleak, beren ikastaldeko curriculumara erreferentziatzen dituenak :**

HHn eta LMHko lehen zikloan HPBak dituen ikasleak euskaraz jasoko du berriazko laguntza. Bere zailtasunen jatorria H1ean duen garapen mugatuan dagoela antzemanaz gero, era pertsonalizatuan landuko da H1eko hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.

3. mailatik aurrera eta DBHn HPBak dituzten ikasleek gehienbat euskaraz jasoko dute laguntza. Gaztelania eta Ingelesa arloak ere indartu egingo dira beharrezkoa bada.

### **HPBekiko ikasleak, norbanakoari egokitutako curriculumara erreferentziatzen dituenak:**

LMH eta DBHn Norbanako Curriculum Egokitzapena duten ikasleak euskaraz jasoko dituzte laguntzak. Haien programazioetan, Gaztelania edota Ingelesa arloak egokitu egin behar direla erabakiz gero, hizkuntza horietan erabiliko horretarako laguntzetan.

### ***Hizkuntzekiko eta hiztunetako jarrera baikorrak garatzeari begirako erabakiak***

Hizkuntza-gaitasun eleaniztuna ez ezik, gaitasun hori testuinguru eta egoera eleaniztunetan kudeatzeko trebetasuna garatu nahi dugu; egoera horietan hizkuntza-hauturik egokiena zein den erabakitze gai izan daitezen, hizkuntza-minorizazio egoeretan ohikoak diren inertzietara makurtu gabe.

Gazteak hautu kontzientea egiteko eta erabaki adostuak hartzeko gai izan daitezen nahi dugu; hots, hizkuntza-jokabide enpatiko, asertibo eta proaktiboa izateko gai izan daitezen, eta hizkuntza-elkarbizitza ekitatez eta gizalegez heldu diezaioten. Horretarako behar duten prestakuntza eta trebakuntza eskaini behar diegula uste dugu.

Horri begira, arloetan (hizkuntzetan, gizarte-zientzietan, tutoretzan...) landuko ditugun gaitasunak eta edukiak jasoko ditugu Ikastetxeko Curriculum Proiektuan.

### **Hizkuntza-gaitasuna arlo ez linguistikoetan**

Arlo guztietan hitz egiteak, entzuteak, irakurtzeak, idazteak eta interakzioan jarduteak lagundu egiten du hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren gaitasuna garatzen ez ezik, arloko berariazko gaitasunak garatzen zein edukiak eta helburuak lortzen ere.

Gainera, argi dugu, jakintza-arlo bakoitzak ditu berariazko hizkuntza-alderdiak: testu genero bereziak, hizkuntza-baliabide espezifikoak... Ikasleek horiek ere menderatu beharko dituzte komunikazio-gaitasun luze-zabala garatzeko. Eta alderdi horiek arlotik bertatik baino ezin dira modu esanguratsuan landu eta garatu. Horregatik arloetan “programazio bikoitza” deiturikoa baliatuko dugu, non arloari berez dagozkion gaitasun, helburu eta edukien lanketari ez ezik, berariazko hizkuntza-alderdien lanketari ere erreparatzen baitzaio.

### **Irakasleon prestakuntza**

Hizkuntza Proiektu honetan erabakitakoa aurrera ateratzen joateko, irakasleon eta gainerako profesionalen hizkuntza-prestakuntzan sakontzen jarraitu behar dugu.

Prestakuntzaren ikuspegi indibiduala gainditu, eta irakasleon eta gainerako profesionalen hizkuntza-prestakuntza plana garatzen joango gara. Plan hori ikastetxearen prestakuntza proiektuaren barnean txertatuko eta Hobekuntza Planarekin lotuko dugu).

Ikastetxearen hizkuntza-prestakuntza planak hainbat ardatz edo langai izango ditu:

- Profesionalen hizkuntza-gaitasuna eta -kalitatea.
- Komunikazio-trebetasunen lana, edozein arlotan, hobetzeko prestakuntza didaktiko-metodologikoa.
- Ikas-jardueretan komunikazio-egoerak sortu, kudeatu eta dinamizatu ahal izateko trebakuntza.
- Hizkuntza-jarrera eta -jokabide enpatikoak, asertiboak eta proaktiboak ikasleekin landu ahal izateko trebakuntza.
- Ikasleengan gaitasunaren kontzientzia landu eta ikasprozesuaren autoerregulazioa sustatu ahal izateko prestakuntza.



## B ikastetxea:

### 4.1- Harremanen, kudeaketaren eta antolaketaren eremua.

#### -Eremu instituzionala

Atal honen barruan aurkezten diren alderdiak ikastolaren eraketarekin eta gizarte-harremanekin lotuta daude, eta ikastolan nahiz ikastolatik kanpo hizkuntza gutxituaren erabilera sustatzeko eta babesteko helburua dute nagusiki.

Eremu instituzionala ikastolako hizkuntz politikari dagokiona da. Bi azpi-eremu biltzen ditu honek ere: eraketa eta barne-komunikazioa eta kanpo-harremanak.

- Eraketa eta barne-komunikazioaren atalean, ikastolaren testuingurua ahalik eta euskaldunena egiteko beharrezkoa den hizkuntz kudeaketari dagozkion erabaki nagusiak biltzen dira. Hartara, hizkuntz paisaia zaintzeko irizpideak ezarri eta haien jarraipena ziurtatzeaz gain, estrategiak zehaztu behar dira eremu horri dagokion hezkuntza-komunitatearen harreman-sareetan euskararen erabilera eragozten duten etenak identifikatzeko eta gainditzeko. Harreman-sare horiek bitan banatu ditugu, ikastetxea eta familia, bakoitzean berariaz eragin ahal izateko.
- Kanpo-harremanen atalean jasotzen dira ikastolak euskara sustatzeko inguruko gizartearekin elkarlanean sortu beharreko loturak eta bultzatu beharreko konpromisoak.

#### -Komunikatzen ikasi konpetentzia orokorra

Aurkeztutako ikuspegiari erantzunez, XXX Ikastolaren hizkuntzekiko xedea ikasleen komunikazio-konpetentzia garatzea da, hizkuntza(k) bizitzako egoera eta behar guztietarako tresna eragingarri gisa erabil ditzaten.

Horrenbestez, komunikazio-konpetentzia garatu ahal izateko ikastolaren komunikazio-testuinguruko eremu guztietan eragin behar da: gela barruan, gelaz kanpokoan eta eremu instituzionalean. Hartara, eremu bakoitzak eta bertan partaide den hezkuntza komunitatearen kide bakoitzak (ikasle, profesional zein gurasok) egiten dio ekarpena ikaslearen komunikazio-konpetentziari.

- **Gela barruko** esparru akademikoari dagokionez, hizkuntzaren garapen egokia da arrakasta akademikoaren giltzarria, hura baita ikaste-irakaste prozesu ororen tresna nagusia. Ondorioz, **hizkuntza era kontzientean irakatsi behar dute irakasgai guztietako irakasleek**. Irakasle bakoitzak bere arloko berezko hizkuntz beharrei erreparatu behar die, honako hauek hartuta arloko curriculumeko funtsezko osagai gisa: arloari dagozkion operazio kognitibo-linguistikoak, testu-genero ohikoenak, eta horiei arrakastaz aurre egiteko ikasleak erabili behar dituen hizkuntz gaitasun eta prozedura nagusiak.  
Era berean, gela barruko interakzioa hizkuntzaren jabekuntza eta garapenerako esparru garrantzitsutzat hartzen du XXX Ikastolak. Ezagutzaren eraikuntza sozialak eskatzen du ideiak eta ezagutzak besteekin alderatzea, eta besteekin batera garatzea. Ikasleek besteekin elkarlana egin behar dute ezagutza berria eraikitzeko, norberaren ideiak eta ezagutzak azalduz, besteekin erkatuz, eta argudiatuz. Interakzio didaktikoak, hizkuntzaren erabilera bultzatzeko eta ahozko elkarreraginezko generoak bideratzeko eskaintzen dituen aukerak behar bezala ustiari ahal izateko, arlo guztiak eta arloetako irakasle guztiak bilduko dituen plangintza koordinatua behar da.
- Horrekin batera, **eskolaz kanpoko** eta aisialdiko egoeretan ere modu hausnartuan jokatu behar da, pertsonarteko harreman ez-formalen hizkuntz ereduak eta konpetentziak garatu ahal izateko.



Eskolaz kanpoko eremuaren xede nagusia, euskararentzat espazioa irabaztea den momentutik, eta lan horrek etekinak izatea nahi bada, berezko planteamendu didaktikoa behar du.

- Azkenik, **eremu instituzionalak** egoera guztietarako biltzen dituen hizkuntz irizpideak finkatu behar dira, ikastolako bizitzan sortzen diren barne- zein kanpo-harreman guztiak euskaraz gerta daitezten, eta ikasleek hizkuntza erabiltzeko izango dituzten aukerak areagotzeko. Hizkuntza bakoitzaren lekua eta funtzioa ikastolako eremuetan

| EREMUAK        |                                | HIZKUNTZA |            |           |           |    |
|----------------|--------------------------------|-----------|------------|-----------|-----------|----|
|                |                                | EUSKARA   | GAZTELANIA | INEGELESA | FRANTSESA | H1 |
| PEDAGOGIKOA    | GELA BARRUKOA                  | X         | X          | X         |           |    |
|                | GELAZ KANPOKOA                 | X         |            |           |           |    |
| INSTITUZIONALA | ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA | X         | X          |           |           |    |
|                | KANPO-HARREMANAK               | X         | X          |           |           |    |

Gelaz kanpoko eremuen hizkuntzen banaketa:

| GELAZ KANPOKO EREMUAK    | EUSKARA | GAZTELANIA |
|--------------------------|---------|------------|
| JOSTALDIAK               | X       |            |
| JANTOKIA                 | X       |            |
| SARRERA-IRTEERAK         | X       |            |
| ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK | X       |            |
| IRTEERAK-KANPALDIAK      | X       | X?         |

## 4.2- Eremu didaktiko-metodologikoa.

### - Eremu pedagogikoa

Atal honen barruan, hizkuntzaren garapenean eragina duten irakaskuntza eta ikaskuntza prozesu guztiak biltzen dira eta, horietaz gain, xede pedagogikoak dituzten eskolaz kanpoko jarduerak ere jasotzen dira.

Halaber, eremu pedagogikoa bi azpi-eremutan banatzen dugu: gela barrukoa eta gelaz kanpookoa.

- **Gela barruko eremuak** irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak jasotzen ditu eta bi azpi-eremu biltzen ditu bere baitan. Alde batetik, kudeaketa pedagogikoaren atala, hizkuntzen curriculum bateratua helburu duten erabakiak eta gainerako arloetako hizkuntza beharrei erantzuten diotenak biltzen dituena. Beste aldetik, arlo guztiak besarkatzen dituen interakzio didaktikoaren esparruari ere begiratzen dio eremu honek; gela barruko harreman-sareen hizkuntzaren kalitatea bermatzea eta ikaskuntza – irakaskuntza prozesuan bideratutako komunikazioa ahalik eta aberatsena eta eraginkorra egitea du helburu esparru horrek. Horrekin batera, lan-ildo horiek aurrera eramateko irakasleen beharrezko prestakuntza eta baliabideak jasotzen dira hemen; hala nola, hizkuntzaren hobekuntza, metodologia eta didaktika, eta hizkuntzekiko jarrerak.
- **Gelaz kanpoko eremuak** irakasle, hezitzaile nahiz begiraleekin bideratzen den gelaz kanpoko jarduna du helduleku. Ikastolaren egoera soziolinguistikoa kontuan hartuz, eta hizkuntza bakoitzean ezarritako azken helburuen arabera beste hizkuntza batzuk erabil badaitezke ere, eremu hori hizkuntza gutxituaren, euskararen, sustapenari begira dago bereziki. Eremu horretan ikaslearen bizitzaren esparru ez-formaletan eragin nahi da, eta bitartekoak jarri nahi dira esparru horietan ohiko komunikazio-hizkuntza euskara –kalitatezko euskara- izan dadin. Hortaz, gelaz kanpoko egoeretan bideratutako komunikazioaren kalitatea aztertu behar da, hura aberasteko

metodologia eta estrategiak landu behar dira, eta horiek aurrera eramateko beharrezko hezitzaileen prestakuntza zein baliabideak zehaztu behar dira.

### **-Hizkuntzaren eta hizkuntza-irakaskuntzaren ikuspegia**

#### **• *Hizkuntzaren ikuspegia***

Konpetentzien hezkuntza berri horri hizkuntzei buruzko berezko ikuspegia dagokio: gizarte-ekintzara bideratutako ikuspegia. Pertsonak ekintzen bidez jarduten dute munduan, testuinguru eta egoera askotarikoetan, hainbat helburu lortu nahian. Beraz, hizkuntz ekintzek erregulatzen dituzte giza-ekintza guztiak, eta munduaren eta pertsonen arteko harremanak antolatzen dituzte ere.

Hala, XXX Ikastolak testu-generoen ulermen eta ekoizpenean ardaztutako metodologia hobetsi du.

Horrenbestez, ikaslea egoera jakin batean eta helburu bat lortzeko hizkuntzaren bidez ekiten duen pertsonatzat hartzen da eta ekintza horren testuinguruan lantzen da hizkuntza, bertan sortutako testuaren ezaugarri formalak zein eduki mailakoak landuz.

#### **• *Euskararen ardaztutako hezkuntza eleaniztuna***

XXX Ikastolak honako hautuak eginak ditu, helburutzat dituen hizkuntzak garatzeko orduan:

- **Euskara** du eskolako komunikazio- eta ikasketa-hizkuntza nagusi, ikastola barruan ahalik eta komunikazio eremu gehien harentzat irabazi nahian.
- **Gaztelania** du bigarren hizkuntza, gizartean duen lehentasuna aintzat hartuz, eta bereziki ikasketa-munduarekin loturiko erabilera formalak indartzeari begira lantzen du.
- **Ingelesa** lotzen du lanerako edo ikasketak jarraitzeko testuinguruarekin, globalizazioaren gizartean hartu duen lingua franca papera ikusirik; eta ez ditu kultura anglofonoaren osagaiak aintzat hartzen.

### **-Hizkuntza arloaren trataera**

Esan bezala, XXX Ikastolaren Hizkuntza arloaren helburu nagusia, bizitzako zeregin askotarikoetan ekiteko ikaslearen komunikazio-konpetentzia garatzea da. Helburu horri erantzunez, Hizkuntzak eta Literatura ikas arloaren curriculumaren oinarria, hizkuntzaren ikuspegi diskurtsiboan datza; bestela esanda, hizkuntza erabiltzen ikastea izango da konpetentzien definizioaren zein edukien hautaketaren oinarria.

#### **• *Hizkuntzen ikuspegi bateratua: curriculum integratua***

Arestian aipatu bezala, euskararen ardaztutako eleaniztasuna garatu nahi bada, ezinbestekoa da hizkuntzen ikuspegi integratzailea eta horrekin batera doan curriculum bateratua gauzatzea.

Alde horretatik, curriculum proposamen integratu eta bakar batean bildu behar da hizkuntza guztien ikaskuntza-irakaskuntza. Horrela, ikaskuntzaren osagarritasuna ahalbidetzen da, baita hizkuntza bakoitzak dituen berariazko hizkuntza alderdiak alderatzeko lana eta hizkuntza batean ikasitakoa beste hizkuntza batzuetan aplikatzea ere.

Ondorioz, arloaren konpetentzia nagusien eta blokeen definizioa eta oinarrizko edukiak aukeratzeko irizpideak berberak dira curriculumaren baitako hizkuntza guztientzat; horrela, horien garapen osagarria bermatzen da. Berariazko konpetentziak definitzean eta, bereziki, horiek ebaluazio-irizpideen bidez definitzen direnean, hizkuntza bakoitzaren lorpen-maila zehazten da.

#### **• *Metodologiaren ikuspegia***

Arestian esan dugun moduan, Hizkuntzak eta Literatura arloaren curriculumaren hezkuntza-konpetentzia orokorren arabera diseinatzeak, ikuspegi diskurtsiboan oinarritzen den metodologiaren hautua egitea eskatzen du. Ikuspegi horren arabera, hitz egitea eta idaztea komunikazio-testuinguruaren baitan, helburu batzuk lortzera bideratzen diren testuak eraikitzea da. Horrek zuzeneko eragina du metodologia-erreferentzia jakin batzuen artean hautua egiterakoan, hartara, ondoko irizpideok kontuan hartu dira:

- Ikaskuntza, komunikazio-egoera esanguratsuak ahalbideratzen dituzten proiektuetan oinarritzea.
- Testu-generoak, Hizkuntza arloaren eduki nagusia izatea. Testu-genero bakoitzak berariazko ezaugarriak ditu, beraz, bere ulermen eta ekoizpenerako ikaskuntza espezifikoak lantzea eskatzen du.
- Ikaskuntza, sekuentzia didaktikoetan egituratzea. Honen bidez, jarduerak komunikazio-lan zehatz bat lortzera bideratutako helburu didaktiko batzuen inguruan antolatu eta artikulatzen dira.
- Prozedurak eta goi mailako estrategia kognitiboen garapena nagusitzea; hizkuntz ezagutza lortzeaz eta ezagutzak aplikatzeaz gain, hitzekin gauzak egiten jakitea.
- Gramatikaren trataera, funtzionala eta kontestualizatua izatea. Hau da, gramatika, dugun zereginari erantzuteko baliabidea izatea.
- Ikasleen artean eta irakasleen eta ikasleen artean elkarreragina indartzea, ikasgela komunikazio testuinguru erreal bihurtu dadin.
- Lankidetzazko ikaskuntza indartzea. Proposatzen diren zereginetan, ikasketa autonomoaz gain, ikasketa kooperatiboa bideratzen duten ikasleen taldekatze motak potentziatzea.

## C ikastetxea:

### 4.1- Harremanen, kudeaketaren eta antolaketaren eremua.

#### 1- Interakzio didaktikoa

##### a- Harremanak

- **Irakaslearen hizkuntz eredia eta hizkuntzarekiko jarrera:** institutuko arlo akademikoari dagokion esparruan irakasleak dira eragilerik sendoenak.

Hori dela eta, beraiei dagokie, euskara eta euskaraz irakasteaz gain, euskararen erabilera sustatzearen eta hitzez zein ekintzaz euskara prestigiatzearen ardura nagusia.

Irakaslearena ikaslearentzat hizkuntz eredu nagusia izanik, ezinbestekoa da bera kalitatezkoa izatea eta, bestalde, euskararekiko balorazio positiboa ikasleengan garatu nahi bada, horretan ere irakaslearen eredia garrantzitsua da: norberak ez duena, ezin baitie besteei transmititu, beraz, irakaslearen hizkuntz maila, eredia eta hizkuntzarekiko jarrera baikorra ziurtatu. Baloratu ondoren, beharra sumatuz gero, hizkuntz prestakuntza espezifikoa beharko litzateke.

- **Irakasle-ikasleen arteko hizkuntz erabilera eta kalitatea:** ohiko gela barruko interakzioan, irakaslea izan ohi da protagonista eta hizkuntza erabiltzailea. Tradizio hori apurtu eta benetako elkarrizketa gauzatzea eta komunikazio joan-etorri hori kalitatezkoa izatea bideratuko duen planteamendu didaktikoa behar da.

- **Ikasleen arteko hizkuntz erabilera eta kalitatea:** gela barruan komunikazio aukerak zabaltzeko bitarteko garrantzitsua da ikasleen arteko interakzioa. Horretarako ikasleen arteko euskararen erabilera eta haren kalitatea ziurtatu beharko da:

##### B. Baliabideak:

**Gelaren girotzea (horma-irudiak, kartelak, etab.):** gelaren girotzean (horma-irudiak, kartelak, etab.) euskararekiko motibazioa eta norbanakoaren harekiko kontzientzia potentziatu, beti ikasleek erabilitako hizkuntza desberdinen presentzia ziurtatuz.

**Informazio iturrien eta bestelako baliabideen hizkuntza:** informazio iturriak eta bestelako baliabideak hautatu:

- Euskarazko informazio iturrien bilduma ahalik eta aberatsena eta eguneratuena (teknologia berriak barne) bideratu.
- Langai diren gainerako hizkuntzetarako oinarrizko baliabide eta informazio iturriak ziurtatu.

#### 2- Gelaz kanpoko eremuak

Irakasle, hezitzaile nahiz begiraleekin bideratzen den gelaz kanpoko jarduna du helduleku. Ikastetxearen egoera soziolinguistikoa kontuan hartuz, eta hizkuntza bakoitzean ezarritako azken helburuen arabera beste hizkuntza batzuk erabil badaitezke ere, eremu hori hizkuntza gutxituaren, euskararen, sustapenari begira dago bereziki. Eremu horretan ikaslearen bizitzaren esparru ez-formaletan eragin nahi da, eta bitartekoak jarri nahi dira esparru horietan ohiko komunikazio-hizkuntza euskara -kalitatezko euskara- izan dadin. Hortaz, gelaz kanpoko egoeretan bideratutako komunikazioaren kalitatea aztertu behar da, hura aberasteko metodologia eta estrategiak landu behar dira, eta horiek aurrera eramateko beharrezko hezitzaileen prestakuntza zein baliabideak zehaztu behar dira.

### 3- Eremu instituzionala

Eremu instituzionalean biltzen diren alderdiak institutuaren eraketarekin eta gizarte-harremanekin lotuta daude, eta ikastetxean nahiz ikastetxetik kanpo hizkuntza gutxiaren erabilera sustatzeko eta babesteko helburua dute nagusiki. Ikasleen hizkuntza portaeran zuzen-zuzen eragiten ez badute ere, eremu instituzional horri hizkuntzarekiko identifikazio eta koherentzia ezartzen diote.

#### a- Institutuaren antolaketa

- **Gobernu eta funtzionamendu organoak:** egin beharrekoak.
- Aginte Organo eta Estamentu desberdinen barne harremanetarako hizkuntza (aho zein idatzizkoa) euskara izango da, hala ere, Gurasoen Estamentuak eta Ez-irakasleen Estamentuak partaideen profila kontuan hartuta arituko dira.
- Institutuko informazioa eta harremanak, barnekoen artean, euskaraz izango dira. Kanpotik datozenei euskaraz aritzeko aukera luzatuko zaie..
- **Ekonomia, administrazioa eta dokumentazioa:** ekonomia eta administrazio arloetan sortzen den dokumentazioa idatzia euskara eta gaztelaniaz izango da.:
- **Langileen hizkuntza profila:** institutuko langileriaren hizkuntz profilak definituko ditugu:
- Irakasleek:: C1 izango dute.
- Ez-irakasleek: euskara dakitenek ahalik eta gehien erabili behar dute, eta ez dakitenek haien maila hobetzen saiatu beharko dute. Berriak datozenean (ordezkapenak, erretiroak...) euskaldunak izan beharko dute. Horretarako ikastetxeko zuzendaritzak Lakuako Hezkuntza saileko pertsonal kudeaketako arduradunari behar hau helaraziko dio.
- **Espazioaren banaketa eta trataera:** esparru fisikoari dagokionez, institutuko egoitzan (patioetan, geletan, jantokian, pasabideetan...) euskara izan behar du erabiltzen den hizkuntza.
- **Ikastetxeko errotulazio eta informazio guneak:** Institutuko, kanpoko nahiz barruko hormek eta pasabideek, euskaraz bizitzeko giroa bideratuko dute, ikasleak horretara bultzatuz.
- Informazio gunea: jarritakoek euskara bermatuko dute.
- Errotulazioa: institutuan irakasten diren lau hizkuntzak erabil daitezke. Beti ere euskara kaltetuta atera gabe.

#### b- Interakzioa

##### **b-1. Ikastetxea orokorrean**

Ikastetxea ez da soilik ikasgela, ikastetxearen heziketa ardurak ez dira arlo akademiko hutsera mugatu behar. Izan ere, euskararen normalizazioan aurrerapausoak eman ahal izateko, ezinbesteko da, arlo akademikoaz gain, ikaslearen beste bizitza esparruetan eragitea, haietan ohiko komunikazio-hizkuntza euskara izan dadin bitartekoak jarriz eta sistematikotasunez ekinez. Bide horretatik, alegia, eremu instituzionala eskola esparru gisa begiztatuz, eta inolaz ez esparru hauek saihestuz, lor dezakegu astiro-astiro euskararekiko atxikimendua sendotzea eta ondorioz euskararen erabileran aurrerapenak nabaritzea.

Ez dugu ahaztu behar, gainera, erdal giro gordinean bizi diren gure ikasleek kultura eta aisialdiarekin zerikusia duten bizitza esparruak gaztelaniaz aurkitu ohi dituztela. Beraz, ikastetxeari dagokio, orokorrean, ondoren aipatuko diren bizitza esparruetan sortzen diren egoera komunikatiboetan euskararen erabilpena ziurtatzea.

- **Jolasaldia:** jolaslekuetan, eskola ordu barnean, ikasleen euskarazko komunikazioa bideratu eta garatuko duten jarduera gidatu desberdinak eratu, horretarako lagungarriak izan daitezke guraso elkarteak eman ditzakeen baliabideak.
- **Jantokia:** euskararen presentzia eta erabilera bermatu, horretarako beharrezkoak ditugu begirale euskaldunak.

### **Eskolaz kanpoko ekintzak:**

- Ikaslearen bizitzan kultura eta aisialdi esparruetan sortzen diren beharrak kontuan harturik, eta are gehiago inguru erdaldunean gaudela kontuan harturik, euskara eta euskal kulturaren inguruko ekimenak antolatzea.
- Antolatutako ekimenetan euskararen erabilerari lehentasuna eman behar diogu. Mintegi guztiek, aukeran, euskaraz proposatutako irteerak proposatuko dituzte.
- Irakasleen hizkuntz erabilera eta kalitatea: irakasleak dira ordutegi barruan euskararen erabilera sustatzen eta harekiko prestigioa nabarmentzen dutenak. Beraiek dira hizkuntz eredu eta motibazio eragile nagusiak, beraz, institutuak bideratu beharko lituzke:
  - o Irakasleak ikasleentzat euskararen *eredu ona eta aberatsa* izan behar du.
  - o Irakasleak euskararen *normalkuntzaren aldeko eragile* izan behar du.
  - o Irakasleak, ahal den neurrian (euskalkiduna baldin bada, erregistro ez-formalean), *harremanetarako hizkuntzaren erregistro eta hizkera bizia erabili* behar du.

Gainerako giza-baliabideen hizkuntz erabilera eta kalitatea: irakasleez gain, institutuko funtzionamenduaren luze-zabalean, badira eragile gehiago, eta garrantzitsuak gainera: begiraleak (kirola, kultura, aisialdia, autobusa, jangela, e.a.), langileak (administraziokoak, atezaina, garbitzaileak, sukaldariak, e.a.) gurasoak, ikasle helduak, bisitariak, etab. Horien hizkuntza portaerak zerikusi handia du ikasleek izango duten hizkuntzarekiko jarrerarekin.

Ikastetxearen egitekoa da horietako giza-baliabide bakoitza euskararen alde eragingo duen agente garrantzitsua izan dadin saiatzea eta horretarako behar diren bitartekoak ikastetxeko hezkuntza eta hizkuntz proiektuan aurreikustea.

Zereginak: Institutuko hizkuntza euskara izango da. Esparruz esparru aztertuta:

- o Begiraleak: eskolaz kanpoko ekintzak ematera datozenek euskara erabili beharko dute (kirola, hitzaldi, ikastaro, PROA,...)
- o Gurasoak: gurasoekin egiten ditugun banakako bilera guztietan euskaraz izango da lehenengo agurra edo kontaktua, eta euskalduna bada, euskaraz jarraituko dugu. Taldeko bilerak ere euskaraz hasiko ditugu eta ahal den neurrian horrela jarraitu edo gaztelaniarekin tartekatuko. Idatzizko informazioa euskaraz emango dugu eta beharrezkoa den kasuetan bi hizkuntzetan (euskara eta gaztelanian).
- o Bisitariak: lehenengo hitza beti euskaraz izango da. Horrela, bisitaria euskalduna bada komunikazioa euskaraz egitea bermatuko da.

### **b-2 Familia**

Ikaslearen inguruko harreman sareetatik (gurasoak, lagunak, aisialdi ekintzako lagun taldeak...), gizartean euskararen alde ari diren talde eta elkarteak alde batera utzi gabe, familia da ondorio nabarmenenak ezartzen dituen eragilea euskararen transmisioan.

**Familia barruko hizkuntza erabilera eta kalitatea:** Familia da euskararen transmisioan gehien eragiten duena. Ikaslearen hizkuntz errealitatea eta gurasoen hizkuntza-tipologia identifikatuta bakoitzari dagozkion estrategiak ezarri eta aplikatuko ditugu:

#### **•Euskaldun aktiboekin:**

- o Gurasoen jokabide naturala txalotzeaz gain, euskararen normalkuntzarako jokabide horrek duen garrantzia azpimarratzea.
- o Euskararen kalitateak duen garrantzia kontuan hartuz, hala behar dutenei, eremu desberdinetan euskararen erabileran trebatzeko eta alfabetatzeko aukerak eskaini eta horretarako erraztasunak ematea.
- o Euskal kultura eta aisialdia eskaintzen ezagutza bideratzea.
- o Familietan euskalkiaren erabilera bultzatu eta txalotzea.

### •Euskaldun pasiboekin

- Euskara dakien gurasoari seme-alabekin euskaraz hitz egiteak beraien etorkizunerako duen garrantziaz ohartaraztea, euskararen transmisioa haurtzaindegiaren eta eskolaren esku utzi gabe.
- Euskara erabiltzera bideratuko dituzten egoerak eskaintzea: institutuak familiarekin dituen harremanak euskaraz eginez, euskaraz dakiten gainontzekoekin lan taldeetan txertatuz.
- Euskaraz ematen diren kultura eta aisialdia eskaintzen ezagutza bideratzea.

### •Familia elebidunekin

- Euskara dakien gurasoari seme-alabekin euskaraz hitz egiteak beraien etorkizunerako duen garrantziaz ohartaraztea, euskararen transmisioa haurtzaindegiaren eta eskolaren esku utzi gabe.
- Seme-alabek, familian zein familiaratik kanpo, dakitenekin euskaraz hitz egiteak duen garrantziaz gurasoak jabetuaraztea.
- Euskaraz ez dakiten aita-amek euskara ikas dezaten motibatuzko eta prozesua errazteko behar diren baliabideak jartzea.
- Euskaraz ematen diren kultura eta aisialdi eskaintzen ezagutza bideratzea.

### •Familia erdaldunekin

- Kasu hauetan, gurasoek hizkuntzaren transmisioa eskaini ezin badute ere, hizkuntzarenganako jarrera positiboa eskaini beharko dute, hau beharrezkoa baita ikasleen euskararenganako jarrera positiboa bermatzeko.
- Arlo akademikoaz gain, euskararen ezagutza eta erabilera garatzeko, ikaslearen bizitza esparruak, ahalik eta gehien, mundu euskaldunaren inguruan egituratu.
- Herrian antolatzen diren euskalgintza ekintzak ezagutu eta euren seme-alabak horietara bideratu beharko dituzte.

## B-3. Ingurunea

Ikastetxearen *inguruneak* euskararen normalizazio prozesuan oztopa dezake, institutuak berak ezin du, zuzen-zuzenean behintzat, ingurune hori aldatu. Hori dela eta, ikastetxeak inguruarekiko harreman-esparruan nola jokatu zehaztuko du.

**Beste ikastetxeekiko harremanak:** ahal denean, euskaldunak diren beste eskola eta ikastetxe batzuekin euskararen erabilera sustatzeko ekimen desberdinak bultzatu.

**Herriko beste talde eta erakundeekiko harremanak:** herrian euskararen alde lanean diharduten kultur, euskara eta aisialdi taldeekin elkarlana bideratu. Era berean, euskal kulturaren alorrean, kirolean, telebistan,... nabarmentzen diren eta euskararekiko jokaera eredugarria duten pertsonekin harremanetan jarri eta institutuko jardueraren osagarri gisa erabili.

**Administrazioarekiko harremanak:** herri administrazioarekin, ahozko zein idatzizko harremanetan, euskararen erabilera finkatu eta sistematizatu.

**Bestelako harremanak:** beste edozein erakunde, talde edota pertsonekin, ohiko hornitzaile nagusiekin, bisitariekin, kanpoko langileekin, behin-behineko harreman profesionalak dituztenekin, eta abarrekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izan daitezen bideak urratu. Hizkuntza irizpideak ezarri.

## C- Hizkuntza Proiektuari begira prestakuntza irizpideak



XXX institutuaren Prestakuntza-plana, besteak beste, Hizkuntza Proiektuaren beharrei egokitutako tresna izan behar du, eta bere baitan hartu behar ditu hezkuntza-komunitatearen partaideak eta komunikazio-eremu guztiak. Horretarako, ondorengo esparru hauetan eragitea aurreikusten dugu: Hizkuntz prestakuntza (Hizkuntza hobekuntza: Euskara (IRALE, EGA...), ingelesa,...) Metodologia prestakuntza (Curriculum eta metodologiaren inguruko prestakuntza Prestakuntzak aintzat hartu beharko dituen hezkuntza-komunitatearen partaideak:

- Irakasleak
- Ikasleak
- Irakasle ez diren langileak
- Gurasoak

### Formakuntz plana

Zuzendaritza taldeak urteko prestakuntza plana antolatuko du, beharren arabera formakuntza eskaintzak bideratzeko. Eginbeharrak:

- Beharrak edo/eta lehentasunak zehazteko irizpideak.
- Beharren arabera lehentasunak finkatu.
- Informazioa eskuratu / zabaldu (IRALE, GARATU, ...).
- Institutuko urteko prestakuntza plana zehaztu (aurreikusi).
- Prestakuntza antolatu edo/eta bideratu.
- Lau urtetik behin hizkuntza formakuntza (euskara) eskaintzea ziurtatu beharko da.

## D- Hizkuntza bakoitzak ikastetxe barruan duen funtzioa eta hartzen dituen eremuak

XXX BHIk, bere helburu orokorretan hautatutako eleaniztasun-eredua aurrera eramateko, hizkuntza bakoitzak ikastetxe barruan duen funtzioa eta hartzen dituen eremuak definitu eta zehaztu ditu.

| EREMUAK        |                                | HIZKUNTZA |            |           |           |    |
|----------------|--------------------------------|-----------|------------|-----------|-----------|----|
|                |                                | EUSKARA   | GAZTELANIA | INEGELESA | FRANTSESA | H1 |
| PEDAGOGIKOA    | GELA BARRUKOA                  | X         | X          | X         | X         |    |
|                | GELAZ KANPOKOA                 | X         |            |           |           |    |
| INSTITUZIONALA | ERAKETA ETA BARNE-KOMUNIKAZIOA | X         | X          |           |           |    |
|                | KANPO-HARREMANAK               | X         | X          |           |           |    |

## 4.2- Eremu didaktiko-metodologikoa.

### - Eremu pedagogikoa

Atal honen barruan, hizkuntzaren garapenean eragina duten irakaskuntza eta ikaskuntza prozesu guztiak biltzen dira eta, horietaz gain, xede pedagogikoak dituzten eskolaz kanpoko jarduerak ere jasotzen dira. Halaber, eremu pedagogikoa bi azpi-eremutan banatzen dugu: gela barrukoa eta gelaz kanpoko.

**Gela barruko eremuak** irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak jasotzen ditu eta bi azpi-eremu biltzen ditu bere baitan. Alde batetik, **kudeaketa pedagogikoaren** atala, hizkuntzen curriculum bateratua helburu duten erabakiak eta gainerako arloetako hizkuntza beharrei erantzuten diotenak biltzen dituena. Beste aldetik, arlo guztiak besarkatzen dituen **interakzio didaktikoaren** esparruari ere begiratzen dio eremu



honek; gela barruko harreman-sareen hizkuntzaren kalitatea bermatzea eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan bideratutako komunikazioa ahalik eta aberatsena eta eraginkorra egitea du helburu esparru horrek.

Horrekin batera, lan-ildo horiek aurrera eramateko irakasleen beharrezko *prestakuntza* eta *baliabideak* jasotzen dira hemen; hala nola, hizkuntzaren hobekuntza, metodologia eta didaktika, eta hizkuntzekiko jarrerak.

## - Kudeaketa pedagogikoa

**Hizkuntzen trataera instrumentala:** lehenago adierazi bezala, hizkuntza komunikazio eta irudikapenerako tresna nagusia bada, zehar lerroaren trataera beharko du, edozein arlotan integratu beharreko eduki bihurtuz; hartara, edozein irakasle gertatzen da eredu emaile, erabilera bultzatzaile, ebaluatzaile, hizkuntza irakasle.

Bestalde, lehen aipatu bezala, hizkuntza arloaren ikuskerak aldaketa sakona izan du. Hizkuntza ez da ikasleek barneratu behar duten ezagutza multzoa, edo hobeto esanda, ez da hori soilik, baizik eta batez ere komunikatzeko tresna da, hizkuntza erabiliz ikasten baita. Ikasketa objektua ez da teoria linguistikoa edo eta sistemaren deskribapena, hizkuntzaren askotariko erabilerak baizik. Ondorioz, hizkuntza arloaren markoak komunikazio eremu desberdinak kontuan hartzen ditu.

Azken batean, ikasleek euskara erabiltzeko gaitasuna bereganatuko dute, ikasten ari direna komunikazio eremu desberdinetan erabiltzeko aukerak dituzten neurri horretan.

**Irakasleen prestakuntza:** Irakasleen prestakuntzan bi esparru aurreikus daitezke: Irakasle guztientzako euskara hobetu eta gaurkotzeko prestakuntza planifikatu. Hizkuntzen arloko irakasleentzako hiru motatako prestakuntza planifikatu:

- Teoria linguistikoen eguneratzea: orokorra, oinarriak, e.a..
- Metodologia eguneratzea: orokorra eta espezifikoa.
- Hizkuntza maila jasotzeko egitarauak.